




SULSTIZIOA

Txakur kopurua Sakanako udalerrietan eta horien erabilera (%)



Sakana familien %28,5 txakurra du

Ibarrean 4.641 txakur daude erregistratuta Hamar biztanleko 2,28 txakur daude, Hego Euskal Herriko ratioa gainditzen du ibarreko txakur kopuruak. Sakanak Nafarroako populazioaren %3,06 du, eta foru erkidegoko txakurren %4,45

Alfredo Alvaro Igoa eta

lune Trecet Obeso SAKANA

Saretzen EITBek eta Tokikomex, euskarazko hedabideen batera-guneak, duten datu kazetaritzari buruzko egitasmoa da. Haren barruan, laugarren azterketan maskotei erreparatu diegu. Nafarroako Etxeko Animalien Identifikazio Erregistroaren arabera Sakanan 4.641 txakur eta 272 katu daude. Baita bestelako 30 animalia ere badaude. Azken horiek honako animalietako bat izan daitezke: txoriak, narrastiak, iguanak edota txerri vietnamdarak. Pentsatzekoa da erregistra-

tu gabe, txipik gabe, maskotaren bat gehiago izanen dela ibarrean. Bestetik, ez dago argi maskoten errolda sistematikoki eguneratzen den eta bajak ere jasotzen diren, litekeena baita datuen artean hildako maskotak egotea ere.

Horiek kontuan izanda, Sakanan guztira 4.943 maskota daude



Gainontzeko datu eta grafikoak ikusteko.
www.guaixe.eus

erregistratuta. Hau da, sakan-darren ia laurdena, %24,26k, etxeko animalia bat du. Kopuruak argi adierazten dutenez, ibarreko maskota ohikoena txakurra da, %93,89 Sakanan. Katuak %5,50 dira eta gainerako maskotak, berriz, %06,60.

Kopurua

Azterketa honetan txakurrei erreparatuko diegu gehienbat. Sakandarren %22,79k txakurra du. Kopuru hori Nafarroako %20,2aren eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) %22,5aren gainetik dago. Bestela esanda,

hamar sakandarreko 2,28 txakur daude, hamar nafarreko 1,57 eta EAeko hamar biztanleko 1,50.

Normalean, zenbat eta biztanle gehiago izan udalerrian orduan eta txakur gehiago daude. Hala da Altsasuren (1.243 txakur, Sakanakoen %26,78) eta Etxarri Aranatz (563, %12,13) kasuan. Irurtzun ibarreko hirugarren herri populatuena da, baina erregistratutako txakur kopuruari dagokionez, ibarreko seigarrena da (309, %6,66). Irurtzunen aurretik daude Arakil (409, %8,81), Olatzagutia (357, %7,69) eta Lakuntza (335, %7,22). Beste aldean, Sakanan txakur gutxien dagoen herria Arruazu dago (64, %1,34). Aurretik ditu Iturmendi (92, %1,98), Ziordia (119, %2,56), Bakaiku (122, %2,63) eta Ergoiena (172, %3,71). Irañetako kasua berezia da, ia biztanleak adina txakur daudelako erregistratuta. Hori gertatzen da herrian pedigria duten txakurren haztegia dagoelako eta, ondorioz, horrek herriko datuak baldintzatzen ditu.

Azken hari horri tiraka, herrietako populazioari eta txakur

kopuruari erreparatuta, Irañeta kenduta, txakur gehien Arruazun daude, %60,38. Segituan heldu dira Ergoiena (%46,11), Arakil (%42,30), Ziordia (%34,39), Bakaiku (%34,37), Urdiain (%30,82), Uhartea Arakil (%27,56), Lakuntza (%26,11), Arbizu (%25,27) eta Olatzagutia (%23,96). Zerrenda horretatik Arakil, Lakuntza eta Arbizu kenduta, gainontzeko zazpi udalerriak despoblazio arriskuan daude Nafarroako Gobernuaren arabera. Txakur tasa txikien duten udalerriei dagokienez, Irurtzun (13,44) eta Altsasu (16,56) daude. Gainontzekoek %20tik gorako ehunekoak dituzte.

Txakurren erabilera

Erabilerearen arabera, Sakanan dauden txakurren %57,9 konpainiakoak dira. Nafarroan konpainiako txakurak %61 dira, Araban %66, Gipuzkoan %71 eta Bizkaian %78. Lehen aipatutako txakur haztegiatik, Sakanan konpainia txakur gehien duen herria Irañeta da (%74,1). Ondoren, konpainia txakur gehien



KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

duen udalerrriak dira: Altsasu (%70,9), Uhartarakil (%67,9), Irurtzun (%66,7) eta Arbizu (%60,2). Beste muturrean, konpainia txakur gutxien dauden udalerrriak dira Arruazu (%29,7) eta Ergoiena (%32). Gainontzeko udalerrietan konpainia txakurrak %43 eta 55 artean daude.

Ehiza txakurrak Sakanan dauden %28,7 dira, Bizkaian %14,5, Araban %19,60, Gipuzkoan %25,40 eta Nafarroan %31,30. Ibarrean ehiza txakur gehien duen udalerrria Arruazu da, %54,7. Sakanako herri bakarra da txakurren erdia baino gehiago ehiza txakurrak direnak. Arruazuk atetik ditu Ergoiena (%44,2), Lakuntza (%41,2), Arakil (%40,6) eta Ziordia (%40,3). Ehiza txakur gutxien dituzten Sakanako udalerrriak dira: Uhartarakil (%12,8), Irañeta (%13,9), Arbizu (%19,7) eta Altsasu (%20). Gainontzeko herrietan, ehiza txakurrei dagokionean, %24 eta 35 arteko kopuruak dituzte.

Zaintzan edo abereen maneian ibiltzen dira ibarreko txakurren %12,7. Araban %9,20, Gipuzkoan %8,30 dira, Bizkaian %7,3, Nafarroan %7 dira. Sakanako gainontzeko %0,8 gida txakurrak, laguntzakoak, kirolerako edo bestelako jardueretarako erabiltzen dira. Nafarroan, %0,7. Sakanari dagokionez, zaintzarako txakur gehien dituen udalerrria Ergoiena da %23,8. Haren atzetik dauden Arbizu (%19,7), Etxarri Aranatz (%19), Uhartarakil eta Urdiain (%17,9) eta Arruazu (%15,6). Zaintza txakur gutxien duen ibarreko herria Ziordia da (%3,4). Halako erabilera duten txakur gutxi daude ere Altsasun (%8,1), Irañetan (%8,2), Irurtzunen (%8,7) eta Arakilen (%9). Gainerako udalerrietan %12,7 eta 14,3 artean daude zaintza txakurrak.

Gida txakur, laguntza txakur, kirolean edo bestelako erabilera dituzten txakurrak Sakanan %0,8 dira, Nafarroan %0,7, Gipuzkoan %0,3 eta Araban eta Bizkaian %0,2. Ibarrean erreparatuta halako txakur gehien Irañetan daude (%3,8). Haren ondoren daude Ziordia (%1,7), Lakuntza (%1,5), Uhartarakil (%1,4) eta Altsasu %1. Bestalde, erabilera horiek dituzten txakurrik ez dago Irurtzunen, Arruazun, Ergoienan, Bakaikun, Iturmendin eta Urdiainen. Gainontzeko herrietan %0,3 eta 0,5 arteko kopuruak dituzte.



Dimitri Ermolenko Txindokiko tontorrean. UTZITAKOIA

Erreskatea posible egin zuen txakurra

Mendian erorikoa izan eta min hartuta gelditu zen mendizale baten txakurrak egoeraren larria adierazi zion Dimitri Ermolenko altsasuarrari. Animalia erorikoa laguntzaz emakumezkoa opatu, larrialdi zerbitzuak deitu, erreskatea egin eta akabera izan zuen

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Dimitri Ermolenko Ukrainan jaiotako altsasuarrari mendizalea da eta 3.000 metroko mendi ugari ditu, baina 4.000koren bat ere. "Mendietako paisaiak gustatzen zaizkit. Igotzen ari zarela sufimendu fisikoa izanez gero, behin gailurrera iritsita plazera bikoitza edo hirukoitza da", azaldu du Ermolenkok. Zehaztu duenez, "kontua ez da alpinismoa egitea, baizik eta edertasunaz gozatzea. Zeren eta askotan, mendi baxuagoetan ere paisaia sinestezinak baitaude. Altuerak ez du inporta". Altsasuarrari asteburuetan naturan paseatzea gustatzen zaio. "Betidanik mendira euriarekin eta lainoarekin ateratzea gustatzen zait. Toki ezezagunetan ibiltzea, lainoagatik galduta egotea. Paseoak biziraupen eta orientazio jolasak bihurtzen baitira", aitortu du.

Txakur bat

Maiatzaren 19ko 15:00etan euri-te handiengatik alerta horia

piztuko zuten. "Horregatik, ez nuen asko arriskatu nahi mendiak igoz, baina paseo bat bai eman nahi nuela". Eguerdian Txindokirantz jo zuen, "eta inolako arriskurik ez zuten tokietan" ibili zen. Etxerako buelta ematear zela, Egurraleko lepura hurbiltzea erabaki zuen, eguraldia aztertu eta tontorrera igotzeko aukera aztertzeko. "Bat-batean haizeak laino oso beltza eta euria ekarri zituen. Eta laino hartatik txakur bat agertu zen, zaunka". Gerora jakinen zuen Lur zuela izena. Ermolenkori arraro egin zitzaion, mendian ez baitzegoen beste inor, eta Larraitzeko aparkalekuan ere autorik ez zegoelako. "Solte zegoen txakur bat izan zitekeela pentsatu nuen. Baina zerbaitek esan zidan beharbada jende gehiago egon zitekeela paseatzen". Txakurrak gero eta modu deigarriagoan egiten zuen zaunka. Ermolenkok azaldu duenez, "Zaunkek ez zidaten arriskurik adierazten, ez ninduten beldurtzen, baina arreata piztu zidan

bere zaunka egiteko moduak. Gainera, txakur gaztea zen". Altsasuarrari txakurrarengana hurbildu zen. "Zaunka egiteari utzi eta aurpegira begiratzen zidan, eta nire aurrean bueltak ematen hasi zen. Zerbait esan nahi zuela pentsatu nuen". Eta Lurri segitzea erabaki zuen Ermolenkok. "Eta txakurrak bere jabearengana eraman ninduen". 14:30 aldera ziren.

Arantxak, 60 urteko eta eskarmentu handiko mendizale tolosarrak, erorikoa izan zuen, eta ezin zen mugitu. Altsasuarrari harengana hurbildu eta sudurretik odoletan ari zela, konortea ez zuela galdu eta begiak ez zudelako oso argi ikusi zuen. Tontorrerako bidean dagoen hirugarren iturriaren ondoan bi bide daude, bat goitik pasatzen da, bestea behetik. Lainoa eta euria sartu ziren, goiko harri bidean zebilen, irristatu eta bi metroko altueratik harri gainean erori egin zen. Emakumezkoa ezin zen mugitu. Gero jakinen zuten Arantxak

haustura larriak zituela: bizkar hezurra, saiheutsak eta buru hezurra. "Oso gaizki zegoela ikusita, 112ra hots egin nuen. Emakumearen egoera larriagatik, jaitsiera oso arriskutsua zen harriak bustita zeudelako, horregatik helikopteroak bidal zitatzela eskatu nuen".

Laino itxia zegoen eta helikopteroek ezin izan zuten ezbeharraren gunera jaitsi. Beraz, suhiltzailez eta ertzainez osatutako erreskate taldea oinez abiatu zen. Bitartean, Ermolenko Arantxaren ondoan zegoen, eta Lur ez zen harengandikurruntzen, "mugitzen nintzen bakoitzean nirekin joaten zen". Emakumea bizkarrean mina zuela kekatzen zen. Buru azpian poltsa jarri zion, buruko moduan. Txirimiria ari zuen hasieran, eta gero eta gehiago, bera tapatzeko borda batean oholen bat edo zerbaiten bila ibili zen, baina ez zuen opatu. Hotzak zegoela esan zion emakumezkoak, mina zuela. Besterik ezin nuen egin eta eskuak eta besoak berotzen ahalegindu nintzen. "Kalte eginen nion beldurrez, gorputza ukitzea ez nintzen ausartzen".

Erietxera

Lau suhiltzaile 16:00ak aldera iritsi ziren. Ondoren beste bost. Haiek egin zioten aurreneko sendaketa. Ondoren erreskate taldeko ertzainak iritsi ziren. Arantxa ohatilan jarri eta hura eskuz eraman behar izan zuten, eta kontu handiz ibili behar izan zuten, bi orduko lana izan zen. Larraitzera iritsi arte Ermolenkok ondoan egon zen Lur.

Donostia Ospitalera sartu ondoren, zauritutakoaren semeak, Iñakik, altsasuarrari hots egin zion eta jakinarazi zion buru hezurra eta sei saiheuts zituela amak. Besoak eta hankak sentitzen zituela gaineratu zuen. "Azken hori seinale ona da. Baina argi ibili, esan nion. Halako eroriko baten ondoren, ziurrenik, beste gorputz atalak ere kaltetuta egon baitaitezke. Batez ere, bizkar hezurra". Ermolenkok badaki zertaz ari den, lan istripu baten ondorioz, bizkar hezurreko zenbait orno hautsi zituelako. Hurrengo egunean baiezatatu zuen Iñakik altsasuarraren susmoa: zortzi orno eta omoplatoak hautsiak zituen. Zainketa Intentsiboetako Unitatean hainbat egun egon ondoren, Arantxa dagoeneko etxean da, Lur, Dimitri eta erreskate taldeari esker.

"Txakurrari maitasun handia hartzen diozu"

ZURIÑE ORMAECHEA PADILLA HENRY TXAKURRAREN JABEA

Lana bai, baina ongi hezitako txakur batek bueltan ematen duena askoz ere gehiago dela nabarmendu du zuhatzuarrak

ZUHATZU

Zuhatzuarrak txakurra izateak merezi duela nabarmendu du. "Haurren moduan, behar dituzten txertoak eta zaintzak. Bestela, ilea moztea behar badu... arrazoizko prezioak dira. Gutxieneko zerbitzuak dira".

Zergatik duzu txakurra?

Animaliak izugarri gustatzen zaizkidalako.

Noiztik?

Henry duela urtebete dugu. Aurretik arratoi-txakur eme bat izan genuen.

Nondik heldu zaizu txakurrekiko zaletasuna?

Gurasoen familietatik jaso dut zaletasuna. Baserrikoak dira eta mota guztietako animaliak izan ditugu. Animalia zale handiak gara, liluratsen gaituzte.

Zein arrazatako txakurra duzu?

Border collie artzain txakurra da.

Zergatik?

Senarrak aukeratu zuen, mendian ibiltzeko konpainiako txakurra nahi zuelako. Bera gustura, eta ni ere bai. Nigatik balitz, txikiago bat aukeratuko nuke, baina kitto. Arraza horretako txakurrak oso mugituak, urduriak dira, eta mendi bueltetarako oso egokiak dira. Hala ere, etxean gurekin bizi da. Nire ustez, pertsonekin zenbat eta harreman handiagoa izan, orduan eta maitekorragoak dira. Primerako elkarbizitza dugu. Gainera, herri batean bizi gara. Kalera atera eta etxe ondoan ibiltzeko lur zabala du, eta oso aske egoten da.

Nolako harrera egiten dizu ikusten zaituenean?

Etxera sartzean zoratu egiten da. Izugarria da. Hasieran, txikia zenean, kosta egiten zitzaion. Askok markatzen duen txakurra da, pertsonalitate handia zuela iruditzen zitzaidan, oso serioa. Pitteka egin da, eta orain iristen garen bakoitzean goraino igotzen zaigu eta berrogei musutxo ematen dizkigu. Gogaikarria da, baina liluragarri da.

Zer ematen dizu?

Energia positiboa. Triste zaudenean musutxoak ematen dizkizu. Errieta egiten badiozu, pozik egoten jarraitzen dute. Berdin dio zer egiten diozun, sekula ez dira zurekin haserretzen. Oso lagunartekoak, maitekorrak dira. Egiten diezun guztia eskertzen dizute. Txakur bat ongi tratatu eta maitasuna emanaz gero, erabat saritzen zaituzte. Gainera, konpainia izugarri handia egiten dute.

Txakurraren osasuna nola zaintzen duzu?



Zuriñe eta Henry. UTZITAKOIA

Ibarrean lan egiten duen albaiari zoragarri bat dugu. Hots egin eta herrira agertzen da. Oso prezio onak ditu. Albaitaritzakoak ere hor daude. Botika eske joan eta galdetegi pila bete behar dituzu, edozer gauza ez dutelako ematen. Txakurrak asko kontrolatzen dituzte. Altsasuko albaiariarengana ere joan gara. Banatu egiten dugu, guztiek lana izan dezaten. Guztia oso kontrolatuta dago. Guztien aldetik oso ongi. Gainera, Arakilgo Udalak txakur guztiak txertatuta eta araudiaren arabera egoteaz asko arduratu zen. **Txakurra hartu behar duenari zer aholku emanen zenizkioke?**

Lehenik eta behin argi izan dezala txakurtxo horrek konpainia handia beharko duela. Izugarri eskertuko dio. Lana ere bada, hau ez da erraza, txakurrak higie-ne, txertoak eta beste izan behar ditu. Luzera ez da garestia. Hasieran kostatzen da, baina txakurrari maitasun handia hartzen diozu, merezi du. Ondoren oso esker onekoak dira. Konpainia handia egiten dute. Hori bai, diziplina pixka bat izan behar da: eguraldia edozein dela ere, egunero kalera atera behar da, bainatu behar da, lehortu behar da... Baina ez da lan handia, gainera ondoren oso esker onekoak dira. Ongi erakutsiz gero, haiek berdin sarituko zaituzte.

"Aurretik ez dut beste txakurrik izan"

SERGIO ESPUELAS RUIZ KAS TXAKURRAREN JABEA

Unanuarrek mustu berri du txakur jabe titulua eta oso pozik dago txakurrarekin

UNANU

Animalia zalea izanik, aukera suertatu zenean bat hartzea erabaki zuen. Txakurra ez da etxean bizi, kanpoan baizik. Harekin mendira joatea gogoko du unanuarrek.

Zergatik duzu txakurra?

Animalia polita da, eta konpainia handia egiten dit. Niri gustatzen zait.

Noiztik?

Duela bost hilabete dut txakurra. Aurretik ez dut beste txakurrik izan. Txikia nintzenean aitak txakur bat zuen, baina ez etxean, beti kanpoan zegoen.

Nondik heldu zaizu txakurrekiko zaletasuna?

Betidanik gustatzen zaizkit txakurrak, beno, animalia guztiak. Pentsatu nuen txakurra izateko garaia zela.

Zein arrazatako txakurra duzu?

Mestizoa da. Ama euskal artzain txakurra da eta aita ez dakit, agian, artzakurra. Opari bat izan zen. Hemengo neska batek

bost txakur kume zituen pertsona bat ezagutzen zuen, eta bat niretako izan zen.

Zergatik?

Hau etorri zen, ongi etorria.

Nolako harrera egiten dizu ikusten zaituenean?

Ni itzultzen naizenean beti pozik dago txakurra. Saltoka egoten da, eta buelta pila bat ematen ditu.

Zer ematen dizu?

Konpainia handia egiten dit. Niri asko gustatzen zait mendira joatea eta berarekin joatea, niretako hoberena da.

Txakurraren osasuna nola zaintzen duzu?

Janaria oso garrantzitsua da. Eta gero aktibitatea: kirola, mugitzea. Txertoak-eta, guztia behar bezala jarri behar dira.

Txakurra hartu behar duenari zer aholku emanen zenizkioke?

Gogoia izan behar duzu. Niretako hori da garrantzitsua. Eta denbora pixka bat ere. Baina pozik bukatuko du.



Sergio eta Kas Berriain mendian. UTZITAKOIA



Ricardo eta Kai lagun handiak dira.

"Ikusten nauenean asko hunkitzen da"

RICARDO CALVO DE LA FUENTE KAI TXAKURRAREN JABEA Paseatzen, eta txakurra sokarekin lotuta, etorri bezala joan dira ziordiarra eta bere txakurra

ZIORDIA
Ziordiko udaletxe pareko berdeguenean izan da hitzordua. Kailurrean etzanda egon da elkarriketak iraun bitartean, ez du zaunka bakar bat egin. Baina inguruan gertatzen ari zen guztiari begira egon da.

Zergatik duzu txakurra?

Konpainia egiteko, berarekin paseatzeko. Kalera ateratzera behartzen nau. Entrenimendu bat da. Baina batez ere, konpainia egiteko dut txakurra.

Noiztik?

Duela hamahiru urte. Txakurren bizitza kontuan hartuta, nirea agure bat da.

Nondik heldu zaizu txakurrekiko zaletasuna?

Etxean gurasoek betidanik izan dituzte txakurrak, beti izan dugu txakur bat etxean.

Zein arrazatako txakurra duzu?

Mestizoa da.

Zergatik?

Lasaiagoa delako, besterik gabe. Nik, gainera, txikia izatea nahia-go nuen.

Nolako harrera egiten dizu ikusten zaituenean?

Bartzelonako musika jaialdi batera joanen naiz garilean eta

Raulek, anaiak, zainduko du. Etxera bueltatzen naizen bakoitzean oso pozik eta alai dago, jostari, eta ikusten nauenean asko hunkitzen da.

Zer ematen dizu?

Kaik niri konpainia handia egiten dit. Norbait etxera etorri eta txirrina jotzen badu, ziztu bizian etxea defendatzera ateratzen da. Badakizu: txakur zaunkalariak hozkarik ez. Ez du ezer egiten, baina txirrina jotzean ziztuan ateratzen da.

Txakurraren osasuna nola zaintzen duzu?

Ihabar edo Irañeta, orain ez dut gogoan herria, alaitari bati hots egiten diot eta etxera etortzen da. Dagozkion txertoak eta bestelakoak jartzen dizkio. Eta gero garbiketa eta halakoak.

Txakurra hartu behar duenari zer aholku emanen zenizkioke?

Ardura handia da txakur bat hartzea. Txakurrari adi egon behar du, zu ez bazaude bakarrik gelditu eta ea zeinek kasu egiten dion. Bidaiatzera bazoaz, jatekoa, ura eta gainerako guztia, ardura handia da.

Sakanan umeak baino txakur gehiago daude

Ibarrean 15 urte bitarteko 3.035 haur eta nerabe daude, txakurrak, berriz, 4.641. Hau da, haurrak baino 1.606 txakur gehiago daude. Despopulazio arrisku mailaren bat duten herrietan nabarmenagoa da aldea. Haur baino txakur gehiago izateko joera


SAKANA

15 urte arteko haur eta nerabeen eta txakurren kopuruak lotzeak gure jendartearen beste irudi bat ematen du. Sakanan 15 urte-tik beherako 3.035 haur eta nerabe daude, eta 4.641 txakur. Hau da, haur eta nerabeak baino 1.606 txakur gehiago daude Sakanan. Hau da, ibarrean hamar biztanleko 2,28 txakur daude, eta hamar ume eta nerabe 15,3 txakur. Euskal Autonomia Erkidegoan 11,4koa da eta Nafarroan 10,6koa.

Sakanako udalerrri batetik bestera aldeak dauden haur eta txakur arteko ratioak. Sakanako herri bakar batean besterik ez daude haur eta nerabe gehiago txakurrak baino: Irurtzunen, 8,2 txakur daude hamar umeko. Ibarreko 15,3ko ratioaren azpitik lau udalerrri daude: Altsasu (11,7), Etxarri Aranatz (13,2), Arbizu (13,9) eta Lakuntza (14,6). Aipatutako bost udalerrriak Sakanako sei populatuenean artean daude. Ume eta nerabeak baino txakur

gehiago duen udalerrria Ergoiena da, 55,5 txakur daude hamar haurreko. Gauza bera gertatzen da Arruazun (53,3), Irañetan (43,9), Ziordian (35), Arakil (29,9), Bakaiku (26) eta Urdiain (24,2). Aipatutako herrietatik Irañeta eta Arakil kenduta, gainontzeko guztiak despopulazio arrisku mailaren bat dute Nafarroako Gobernuaren arabera. Zerrenda horretan dauden Uharte Arakilen haur bakoitzeko 19 txakur daude eta Olatzagutian 18,9.

Haurren (15 urtera arte) eta txakurren ehunekoak herriz herri





ASTEKOA

RAF ATXURI

Jon Sarasuaren azken puntua (oraingoz) eta meza gezak

Jon Sarasua Marixalar atxabaltar sortzailea, euskal intelligentsiaren partaide dugu aspaldi luzean. Bertsolari, intsumiso agerikoa (hainbat arlotan), pentsalari, irakasle, idazlea, *Euskaldun berriaren balada*, *Topa dagigun* edota *Insumisoarena* abestien hitzen egilea besteak beste; Nevadako Tahoe lakuaren ondoan *Maximiliano*, *España es una enfermedad* errimarik gabeko aforismo zehatza bota zuen halako batean.

Bada, azken asteotan bazter bakan batzuk astindu ditu, egungo bertsolarien diskurtso hegemonikoa hizpidera ekarri duelarik. Haren ustez, azken hamarkadetan bertsokeraren banda zabalera progresismoaren agindu estuetara mugatu da, bestelako hautu ideologikoak bertso plazatik kanpo utziz. Horiek horrela, Iñaki Segurola zenaren epaizko kontzeptu bat ekarri du plazara, meza gezarena, hain zuzen, dejavu guztiz prebisibleak iragartzen dituen jarduna.

Egia da euskaraz gorpuzten diren eztabaida ideologikoak oso ertzetik eta apal hotsez iragaten direla; gaztelaniaz

OINORDETZA KONTUAK EZ DIRA INON, INOIZ ERRAZAK GERTATU

eskandaluaren predikatzaileek (Savater, Cela, Arrabal, Umbral, Perez Reverte...) elementu gutxierekin ikuskizunaren bazterrek ongi hornitzen zituzten/dituzte, pentsamenduaren maila kaxkar samarra izan arren.

Sarasuak egindako bi pareta

gaiztoari gutxi heldu diote, Markos Zapiainek edo Jokin Muñozek arrapostu edo zeharkako aipamena egin diote. Ez oso aspaldi, Jose Mari Esparzak ere hauts mingarri batzuk harrotu zituen migranteen auziaz bere ikuspuntua plazaratu zuelarik, eta baten batek estalian, aitorlekuan bezala belarrira esaten zizun "uste dut arrazoi puska koxkorra duela".

Bitartean, zenbait txosnaguneren mugarriztearen auzia lau haizeetara zabaldu da hots handiz. Oinordetza kontuak ez dira inon, inoiz errazak gertatu.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

OBJEKTIBOTIK



Lakuntzako Udala

Gaurko AUZOLANA mundiala izan da, jende asko eta lan ezin hobea egin dugu. Plaza eta Abarrategiko bankuak eraberritu ditugu. Milesker parte hartu duzuten 80 pertsoneri eta bolondres etorri zareten 10ei. Horrela gustora egiten dira gauzak. Zaindu dezagun maite dugun hori! Gora Lakuntzako gazteak!



AITTU!

Entzun zutabeak egileen ahotsean www.guaixe.eus-en

www.guaixe.eus**Maketatzailea:**

Lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus

619 821 436
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Patxi Flores Lazkoz

Lege gordailua: NA-633/1995**Tirada:** 3.200

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
erredakzioa@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kiriolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Irratia:
Eneida Carreño Mundiñano
irratia@guaixe.eus
948 567 074

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus
661 523 245

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275

LAGUNTZAILEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Uharteko eta Arbizuko obrendako finantzazioa

Nafarroako Gobernuaren Toki Azpiegitura Planean erreserban zeuden bi lanak planean sartzea erabaki du orain foru administrazioak. Udalek bere finantziarioa aztertu beharko dute eta, onartuz gero, lanak ez liraterke 2025era arte hasiko

UHARTE ARAKIL / ARBIZU

Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako Departamentuak Toki Inbertsioen Planean erreserban gelditu ziren hamazazpi lan planean sartzea erabaki du. Guztira 5.937.864 euroko balioa duten lanak dira aurreikusitako direnak. Lanak egiteko foru administrazioaren laguntza jasoko duten udalen artean daude Uharteko Arakil eta Arbizuko Uharteko Arakilgo Udalak Itxesi kaleko ur hornidura sarea berritu nahi du, mikrozententuzko hodia ordezkatzeko, eta Itxesi eta Errekabitarre kaleko sarea banatzeko lanak egiteko 413.313,47 euroko (BEZ gabe) inbertsioa egitea aurreikusia du.

Arbizuko Udalak, berriz, Fernando Urkia kalea berritu nahi du. Kale horretan lau lan egin nahi lituzke udalak. Batetik, ur hornidura eta hondakin uren sarea berritzeko lanak, 105.396,48 euroko aurrekontua dutenak. Bestetik, euri ura jasotzeko sarea



Arbizuarra Fernando Urkia kalean.

berritzeko lanak, 47.877 euroko balioa dutenak. Azkenik, behin sarea berrituta kaleko zorua berritu beharko da eta horretarako udalak 278.329,30 euro aurreikusitako ditu. Guztira 431.602,78 euroko inbertsioa (BEZ gabe).

Arbizuko Udalak uraren inguruko eskumenak Sakanako Mankomunitatearen esku utzi zituen, eta, beraz, ur hornidura eta hondakin uren sarea egiteko lanak ibarreko erakundearen ardura dira, hark pagatuko lituzke, gainontzekoak, berriz, Arbizuko Udalak ordaindu beharko lituzke.

Sakanako Mankomunitateko presidente Aitor Larraza Carrearak azaldu duenez, "lan horiek, egitekotan 2025etik aurrera egingen liraterke". Foru administrazioak onartutakoa "behin behinekoa da. Jasotzen ditugunok oniritzia eman behar diegu, eta lau hilabete barru gobernuak dirulaguntzen behin betiko onarpena egingen du". Ondoren aurrekontuetan sartu eta planifikazioa egin beharko da. Ondorioz, gauzak ongi, Uharteko Arakilgo eta Arbizuko lanak 2025etik aurrera hasiko liraterke, beti ere, udalen finantza gaitasunaren arabera.



ARTXIBOA

Iturmendin, suteen kontra

Nafarroako Gobernuak egindako azterketaren arabera Iturmendin udan suteak izateko arrisku handia dago. Hori dela eta Iturmendiko Udalak Baso-suteen arriskuari aurre egiteko Udalaren Jarduketa Plana egin du, eta Babes Zibilaren aldeko txostena du. Hurrengo pausoak izanen dira, batetik, udalbatzak onartzea, eta, bestetik, Babes Zibilak homologatzea.




EKAINAK 24-28

- 10:00** Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta
- 10:15** Prentsaren azala
- 10:20** Albisteak eta kirolak
- 10:30** Hizketan
- 11:05** Solasaldia Karrape eta Aralar irratiakin
- 14:00** Errepikapena

Hizketan

- Ekainak 24** Igor Martinez (El Conquis)
- Ekainak 25** Ekhiñe-Irati abeslariak eta Inigo Donamaria, familia harreraz
- Ekainak 26** Bertso saioa (Bertsoa.eus)
- Ekainak 27** Miguel Ulaiar, Etxarri Aranazko ibilbideen mantetzeaz
- Ekainak 28** Agenda berezia



Murala markesinan

Uharteko Arakilgo Udalak eta Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Prebentzio Zerbitzuak gazteendako graffiti tailerra antolatu zuten hilaren 7an. Herriko autobus geltokiko markesinan esku hartu zuten gazteek, Iker Uribe horma irudigileak

gidatuta. Txomin Uharteko Baleztina alkateak azaldu duenez, "haur, gazte eta migratzaileekin lan txukuna egingen ari dira zerbitzua eta Uharteko Urak taldea. Integrazioa sustatu eta elkarbizitza hobetzeko helburuz batetik, eta lan mundura sartzeko bestetik".





Ekzerretik hirugarrena Erkuden Elbusto Mazkieran (Quesos) eta bosgarrena Santiago Gonzalez De la Torre (Aldakin). UTZITAKOA

Quesos La Vasco Navarra saritu dute

2024ko Nafarroako Enpresa Txiki eta Ertainaren saria eskuratu du. Bost enpresa finalisten artean Sakanako bi zeuden. Bestea, Aldakin, Prestakuntza eta Enpleguaren saria jaso zuen

ALTSASU / OLATZAGUTIA

Bost enpresa zeuden urteko Nafarroako Enpresa Txiki eta Ertainaren (ETE) sarirako hautagaien artean. Eta haietako bi sakandarrak ziren: Aldakin eta Quesos La Vasco Navarra. Olatzagutiko enpresak eskuratu zuen garagarriaren 19an egindako ekitaldian saria. Duela bi urte Prestakuntza eta Enpleguaren akzesita jaso zuen.

Epaimahaiak kontuan hartu Olatzagutiko enpresa "hazi egin" dela, "nahiz eta ziurgabetasun uneak izan eta nazioarteko testuinguru konplexu izan". Epaimahaiak jakinarazi duteenez, 1978an sortutako familia enpresa olaztiarra modu esponentzialen hazi da azken urteotan; hala, 2023ko ekitaldian 60 milioi euro baino gehiago fakturatu zituen 145 langileko plantillarekin. Atzerrian egindako salmentak %15 igo dira urtean, eta bere produktuak 50 herrialdetan baino gehiagotan daude.

Bestalde epaimahaiak nabarmendu du landa eremuan emakumezkoen enplegarritasunarekin oso konprometituta

ATZERRIKO SALMENTAK %15 IGO DIRA, ETA BERE PRODUKTUAK 50 HERRIALDETAN BAINO GEHIAGOTAN DAUDE

dagoen enpresa bat dela, "metalgia-sektorea eta oso maskulinizatuta dauden beste batzuk nagusi diren ingurune batean langileak kudeatzeko eredu aitzindari batekin".

Aldakin

Sari nagusiarekin batera lau akzesit eman ziren. Aldakinek Prestakuntza eta Enpleguarena jaso zuen. Epaimahaiak bereziki azpimarratu duenez, "Aldakin enpresa oso kontzientziatuta dago bere langileen prestakuntzarekin, hainbat ikastaro, master eta doktorego ordaintzen dizkie. Gainera, Lanbide Heziketa Dualeko proiektuetan ere aktiboki parte hartzen du". Bestalde, epaimahaiak gogorarazi du Aldakinen langile kopurua hazi egin dela azken urteotan, 2022an 171 langile izatetik eta 183 langile izatera pasa zen 2023an.

Nor bere mailan, heldu den urtean bi enpresak estatuko sariketari lehiatu dira.

Diez biktima gisa aitortu du Nafarroako Gobernuak

Altsasuarrak atxilotu zutenean tratu txarrak, mehatxuak eta presioak salatu zituen

ALTSASU

Nafarroako Torturatuen Sareak jakinarazi duenez, Nafarroako Gobernuak torturak pairatu dituzten bost pertsona biktima gisa aitortu dituzte. Horien artean Mikeldi Diez Aldama dago. Ibon Fernandez Iradiri bere garaian atzemandako dokumentuetan oinarrituta hainbat atxiloteta egin ziren. Mikeldi 2005eko otsailaren 9an atxilotu zuten beste hamahiru pertsonarekin batera. Atxiloteta haiek guztiak Baltasar Garzon epaileak agindutako sarakada "prebentiboen" barruan kokatu ziren. Mikeldi atxilotu zutenetik 2007ko ilbeltzaren 24 arte preso egon ziren. 12.000 euroko bermea ordaindu behar izan zuen espetxetik ateratzeko. ETari laguntza ematea egotzita Espainiako Auzitegi Nazionalen epaitu zuten 2009ko ilbeltzaren erdialdean. Urte hartako garilean emandako epaian Diez absolbitu egin zuten. Gainera, epaileek sinetsi egin zuten Diezek polizien aurrean egindako autoinkulpazioa asmatu egin zuela.

Nafarroako Gobernuak eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzek era-

gindako hemeretzi biktima aitortu ditu oraingoan. Foru administrazioak beste dozena bat biktima aitortu zituen apirilean. Dagoeneko 31 dira. Aurreneko hartan Mikel Arregi Marin la-kuntzarra eta Josu Imaz Prim altsasuarra izan ziren biktima gisa aitortuak.

Bidea

Foru administrazioaren legearen arabera, torturatua izan edo giza eskubideen urraketak pairatu duen edozeinek aurkeztu dezake biktima izendatzeko eskaera. Horretarako, Memoria eta Bizikidetzazuzendaritza Nagusira jo daiteke zuzenean. Bestela, Nafarroako Torturatuen Sarearen eta Egiari Zor fundazioaren bidez egin daiteke eskaera. Eskaera aurkeztu ahal izateko, lehenik dokumentazioa behar da. Esaterako, norberak emandako lekukotza. Eskaera erregistratu ondoren, gobernuak erabakiko du onartzen duen edo ez. Onartua bada, Aitortza Batzordearen aurrean testigantza eman behar da, eta galderak erantzun. Batzordeak baloratu du eta biktima aitortza ematen zaion eskatzaileari.

DUELA 25 URTE...



Euskaltzaindia Etxarrin

Bitoriano Huiziren *Gramatica Bascongada* liburuaren mendeurrena zela eta, Euskaltzaindiak ekitaldia egin zuen Etxarri Arantzen. Akademiako kideen bileren ondoren, kultur etxeak ekitaldi irekia hartu zuen. Andres Iñigok Etxarriko 1923ko Euskal Jaia ekarri zuen gogora. Joxemiel Bidadorrek Huiziren berri eman zuen eta haren obraz, berriz, Jose Angel Irigarai eta Jose Mari Satrustegi aritu ziren. Jean Haritschelhar euskaltzainburuak eskerrona adierazi zion udalari.

TX
TXARTEL

IGO FITXATEGIAK INPRIMATZEKO

Bidali zure fitxategiak webgunetik zuzenean

www.txartel.net

FESTAK

IZURDIAGA

EKAINAK 21 Ostirala

18:00 Txupinazoa trikietekin eta buruhandiekin girotua.
18:30 Kartel lehiaketako irabazleei sari banaketa.
22:00 Kalderete afaria.
00:00-04:00 DJ Irurtzun.
04:00 Gaupasa tabernan.

EKAINAK 22 Larunbata

12:00 Txapel jaurtiketa.
12:30 Bermuta.
14:00 Norberak ekarritako bazkaria.
16:00 Ezk Txarangak girotutako erronda. Gaia: hiri tribuak.
21:30 Norberak ekarritako afaria.
23:00-03:00 DJ Fidel.
03:00 Gaupasa tabernan.

EKAINAK 23 Igandea

11:00 Meza santua eta hamaiketakoa.
12:00-14:00 Puzgarriak eta barredora.
13:00 Bermuta.
14:30 Bazkaria (Catering Manterola) eta bingoa.
16:00-18:00 Puzgarriak.
18:00-20:00 Pancho Balbuena mexikarrak.
21:00 Barbakoa afaria eta adobezko labearen inaugurazioa.
Oharra: barbakoak eramatea gomendatzen dute.
22:30 Suak piztea.

EKAINAK 24 Igandea

17:00 Auzolana taberna garbitzeko eta biltzeko.

UHARTE ARAKIL

SAN JUAN FESTAK

EKAINAK 21 Ostirala

13:00 Triki poteo.
UAGAK antolatuta.
14:30 Gazte bazkaria.
UAGAK antolatuta.
18:00 Festei hasiera emateko suziria. Jarraian, 2023an jaiotako hurrei zapi banaketa, konpartsak lagunduta. Auzatea jubilatuen eskutik.
19:45 San Migeli harrera.
20:00-22:00 Eztanda txaranga, UAGAK antolatuta.
00:30-02:30 Iratzar taldearekin dantzaldia.
03:00-05:00 DJ Zuribostnerisei.

EKAINAK 22 Larunbata

12:00 Kalejira Erraldoi eta



ARTXIBOA

UHARTE ARAKIL Ekainaren 21ean, ostirala, botako dute festei hasiera emateko suziria Uharte Arakilen. Jarraian, 2023an jaiotako hurrei zapia banatuko zaie.

Buruhandien konpartsarekin.
13:00 Dantza emanaldia
Galtxorranx taldearen eskutik.
Auzatea.
14:30 Herri parrillada.
18:00 Elektrotxufia.
UAGAK antolatuta.
19:00 Buruhandiak.
20:00 Auzatea.
20:00-22:00 Bizpahirupelau taldearekin dantzaldia.
22:30-00:30 Eztanda txaranga.
UAGAK antolatuta.
00:30-02:30 Bizpahirupelau taldearekin dantzaldia.
02:30-05:00 DJ Balber.

EKAINAK 23 Igandea

10:30 Zamartzera erromeria konpartsarekin batera. Meza eta

auzatea.
13:00 Ane Martijaren kontzertua.
Auzatea.
14:30 Jubilatuen bazkaria.
16:00-19:00 Haurrendako jolas parkea, pilotalekuan.
19:00 Sardinada, Aralar Mendi elkartearen eskutik.
Buruhandiak.
20:00 Auzatea.
20:00-22:00 DJ Markel.
22:00 San Juan suak Uharteko Faldunekin.
00:00-04:00 DJ Markel.

EKAINAK 24 Astelehena

12:30 Meza
13:00 Kalejira Erraldoi eta Buruhandien konpartsarekin.
Auzatea.

14:00 Uharteko zortzikoa.
17:00 Pilota partiduak:
Salaberria - Huarte /
Yaben - Salaberria
Olaetxea - Azpiroz /
Igoa - Santesteban.
Tramankulu haur jolasak.
19:00 Txokolate jana.
Buruhandiak.
20:00 Auzatea.
19:00-22:00 Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.

DORRAO

SAN JUAN FESTAK

EKAINAK 21 Ostirala

19:00 Errosarioa, San Juan ermitan.
20:00 Auzatea

EKAINAK 22 larunbata

09:00 Meza, San Juan ermitan.
10:00 Gosaria
15:00 Bazkaria, ermitan.

OLATZAGUTIA

EKAINAK 22 Larunbata

BATUEKO
10:30 Kalejira Burundar Txistulariekin.
Jarraian, Batuekora San Migel plazatik.
11:00 Hamaiketakoa, Batuekon.
13:00 Haurrendako jolasak.
OGAK antolatuta.
14:00 Palestinaren aldeko herri argazkia.
OGAK antolatuta.
14:30 Bazkariak kuadrillen artean.
17:00 La Cigarra txarangarekin dantzaldia.

EKAI

EKAINAK 22 Ostirala

21:00 Plazan, iturriaren ondoan, sua piztu eta afaria prestatuko dute.

AIZKORBE

EKAINAK 23 Igandea

20:00 Iturri ondoko pakean elkartu, sua egin eta bertan herri afaria egiten dute. Ondoren, suan saltoka ariko dira.

ERROTZ

EKAINAK 23 Igandea

21:00 Frontoian elkartu, sua piztu eta afaria prestatu; kontzejuak jatekoa jartzen du. Ondoren, suaren gainean salto egiten dute.

Udako jaietan egizu gurekin topa!

Hijos de Goikoetxea
Tel. 948 467 317 - 996978279 - Gailuak 11 - ALTASU

PORTUKO
Altsasu:
948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz:
948 460 988

FESTAK

IRURTZUN

EKAINAK 23 Igandea

22:30 San Juan gaua.

Suaren bila ikuskizuna: Jatorrian, Sua zerutik eroritako tximista batek sortu zuen. Ama Naturak bidalitako tximista, Lurreko izaki guztientzat opari gisa. Suak neguko gau luzeetako berotasuna eta argitasuna eskaini zien, besteak beste, lurreko biztanleei egun hartatik aurrera. Horregatik gizakiek Sua eta Ama Natura gurtzea eta babestea erabaki zuten; erritualak eginez, festak ospatuz eta tenpluak eraikiz. Horrela izan da urtez urte, mendez mende begi bakarreko izaki ikaragarri batek berekoikeriaz jokatzu Sua lapurtzen saiatu den arte! Lortuko ote du?. Amikoren zuzendaritza eta Iskidi eta Irurtzungo sorginen parte hartzearekin. Aizpeak eta Pikuxarrek antolatuta, plazan.

ETXARREN

EKAINAK 23 Igandea

20:00 Barbakoa txistorra, hirugiharra eta saltxitxak prestatuko dituzte, eta herritarrek eramandako hestekiak eta gazta ere egonen da dastatzeko, Aranburu frontoiaren parean.

EGIARRETA

EKAINAK 23 Igandea

21:00 Bi su piztuko dituzte: handiaren gainean saltoka ibiliko dira eta txikian afaria prestatuko dute, frontoiaren ondoan.

ZUHATZU

EKAINAK 23 Igandea

19:00 Otamena, txistorra, urdaia eta beste, akordeoilariak eta pandero jolearen musikak girotuta. 20:00 Sua piztea, garbitoki ondoan.

SATRUSTEGI

EKAINAK 23 Igandea

Iluntzean, sua piztu eta barbakoa eginen dute: Txistorra eta hirugiharra.

HIRIBERRI ARAKIL

EKAINAK 23 Igandea

20:00 Txitera elkartean parrillada. Ondoren sua piztu eta haren gainean saltoka ariko dira.



ARTXIBOA

URDIAIN San Juan ermitara kalejira egin ondoren, Kantaita eginen dute herriko neskek, garai bateko jantziak gainean.



ARTXIBOA

ALTSASU San Juan egunean iratzeak jarriko dituzte altsasuarrek etxean ateen aurrean, izpiritu gaiztoak kanpoan uzteko asmoz.

IHABAR

EKAINAK 23 Igandea

Iluntzean, sardinak egin, jendeak eramandakoa jan eta sagardoa edateko aukera izanen da, autobikiak zubi ondoko pabiloian.

IRAÑETA

EKAINAK 23 Igandea

20:30 Frontoiaren eta Txapel Azpi elkartearen atzeko aldean elkartu eta otamena izanen da. Udalak urdaia eta ardoa emanen ditu. Ondoren, sua piztu eta saltoka ibiliko dira.

ARRUAZU

EKAINAK 23 Igandea

Arratsaldean, gazteek herritik buelta emanen dute sutarako gauzak biltzeko. Gero sutarako mordoila prestatu eta parrillada eginen dute, eliz atzealdean. 22:00 Sua piztuko dute.

LAKUNTZA

EKAINAK 23 Igandea

Iluntzean, Suak piztea eta afariak. 22:00 Ezkil jotzea.

EKAINAK 24 Astelehena

19:00 Sardinada, Tania arraindegiaren laguntzarekin, Gure Nahia elkartean.

UNANU

EKAINAK 23 Igandea

Iluntzean, suak piztu eskolak zireneko plazan eta kale batzuetan. Suaren gainean saltatu aurretik "Subiek ez piketzeko" esanen dute.

LIZARRAGABENGOA

EKAINAK 23 Igandea

22:00 Sua egin eta haren gainetik salto eginen dute, plazan.

ETXARRI ARANATZ

EKAINAK 23 Igandea

Karrika bakoitzak bere sua piztuko du eta haien inguruan elkartuko dira aldamenak.

BAKAIKU

EKAINAK 23 Igandea

Arratsaldean, Maiatza jasotzea. Ondoren, pintxo potea.

EKAINAK 23 Igandea

20:00 Auzatea auzoan: gazta, txorizoa eta ardoa banatuko ditu udalak.

22:00 Sua piztea, elkartearen aurrean.

ITURMENDI

EKAINAK 23 Igandea

18:30 Frontenis Txapelketa

pilotalekuan.

20:00 Auzatea eta San Juan bezperako sua piztea plazan. Ondoren, afari herrikoia plazan.

URDIAIN

EKAINAK 23 Igandea

19:30 Herrietxetik San Juan ermitara kalejira, txistulariekin, garai bateko jantziak daramaten neskekin eta dantzari txikiekin. Iristean, meza, ermitan.

Ondoren, sua piztu, San Juan kantaita eta dantzari txikien emanaldia, ermitako plazan. Herrian bueltan, auzoka afariak eginen dituzte.

ALTSASU

EKAINAK 23 Igandea

16:45 Txupinazoa trikitilariak lagunduta, San Joan plazan. 17:00 Haur jolasak Tramankulu taldearekin, San Joan plazan. 18:00 Txokolate jana Azabache taldeak girotuta, San Joan plazan. 19:30 Udaltzako, Altsasuko Txistulariekin batera, udaletxetik San Joango ermitara abiatuko da. Udako solstizioa ospatzeko festa eta auzatea. Kukuerekek antolatuta. 20:30 Festaren hasieran: sua piztea eta auzatea, San Joango ermitan.

Herriko suak pizteko txupin iragarlea. Kalejira San Joan ermitatik Foru plazaraino Altsasuko Txistulariekin lagunduta. Auzatea, ermitauaren etxean. 21:30-23:30 Eztanda Txarangak suak girotuko ditu.

EKAINAK 24 Astelehena

20:00 Zortzikoa Altsasuko Txistulariekin eta auzatea, Foru plazan. 22:00 Haize Berriak bandarekin dantzaldia, Foru plazan.

OLAZTI

EKAINAK 22 Larunbata

23:30 DJ Eteko, Barandi tabernan.

EKAINAK 23 Igandea

SAN JUAN BEZPERA 19:30 DJ Adrian Romanos, txistorrada, afariak eta suak, Barandi tabernan.

ZIORDIA

EKAINAK 23 Igandea

18:00 Batuekora joan eta han merendatu. 21:00 Afaria, Txoperan. 22:15 Zortzikoa, Txoperan 22:30 Sua piztea, Txoperan.

ARBIZU**SANJUANAK****EKAINAK 23 Igandea****SAN JUAN BEZPERA**

17:30 Elai Alai dantza taldearen emanaldia.
 19:00 Brindisa eta festen hasierako suziria, plazan.
 19:30 San Juan ermitara igoera Zidakos txarangarekin.
 20:00 Bezperak, ermitan.
 20:30 Maria Lombren Zaldiya kintoen dantza.
 21:30 Jaitsiera txarangarekin.
 23:30-04:00 Trikiteens taldearekin erromeria.

EKAINAK 24 Astelehena**SAN JUAN EGUNA**

10:30 Dianak Zidakos txarangarekin.
 11:00 Herriko puzgarriak.
 12:00 Meza nagusia.
 12:30 Herri gosaria, udalaren eskutik.
 13:00 Sakana kantuz.
 16:30-18:30 Txarangarekin kalejira.
 18:00 Gimnasia erritmikoko erakustaldia.
 19:00 Herriko buruhandiak.
 20:00 Xabi Artieda.
 Atea.
 23:30 Destino Sonora.
 01:00 Txorongo Txarangarekin poteoa.

EKAINAK 25 Asteartea**JUBILATUEN EGUNA**

11:00 Herriko puzgarriak.
 11:30 Jubilatuen meza.
 12:30 Herri gosaria.
 Jubilatuen eskutik.
 Jubilatuen luntxa.
 13:00 Pancho Balbuena.



ARTXIBOA

ARBIZU San Juan egunaren bezperan ermitara igoeraren ondoren, Maria Lombren Zaldiya kintoen dantza egingen dute kintoeak.

17:00 Mus eta briska txapelketak.
 17:30 Nesken pala partiduak, frontoian.
 Playblack lehiaketa.
 19:00 Arbizuko erraldoiak Haize Berri dultzaineroekin.
 20:00 Atea.
 20:30-21:30/00:30-03:00 Itzal taldearekin erromeria.

EKAINAK 26 Asteazkena**GAZTE EGUNA**

11:00 Herriko puzgarriak.
 12:30 Herri gosaria, Argi bideren eskutik.
 14:30 Gazte bazkaria bertsolariekin: Eneko Lazkoz eta Julio Soto. AGAK antolatuta.
 17:30 Haur eta gazteen pilota partiduak.
 18:00 Elektrokela Elektrotxaranga.

AGAK antolatuta.
 Tor magoaren ikuskizuna.
 19:00 Herriko buruhandiak.
 20:00 Atea.
 20:30 Palestinaren aldeko kontzentrazioa.
 AGAK antolatuta.
 22:00 Zezensuzkoa.
 23:00 Kontzertuak: Nikotina, Yugular eta DJ Bull.
 AGAK antolatuta.

EKAINAK 27 Osteguna**HAURREN EGUNA**

07:00 Gaupasero argazkia.
 AGAK antolatuta.
 11:00 Herriko puzgarriak.
 12:30 Herri gosaria, lurralde ezberdinetako janariekin.
 13:00 Haur jolasak.

14:00 Hurren bazkaria eta izozki banaketa.
 15:00-19:00 Atracciones Sanz.
 17:30 Emakume Master Cup pilota partiduak, frontoian.
 19:00 Herriko buruhandiak.
 20:30-22:00/00:00-03:00 Joselu Aniak taldearekin erromeria.

EKAINAK 28 Ostirala**KINTOEN EGUNA**

11:00 Herriko puzgarriak.
 12:30 Herri gosaria.
 Alda Bideren eskutik.
 13:00 Piperropil tailerra, plazan.
 17:30 Herri kirolak, Axiori omenaldia eta herritarren arteko apustua.
 18:45 Arbizuko erraldoiak Haize Berri dultzaineroekin.

20:00 Atea.
 20:30 Arbizuko trikitalariak.
 22:00 Zezensuzkoa.
 00:00 DJ Txo.

EKAINAK 29 Larunbata**DENAK ITXAA EGUNA**

11:00 Herriko puzgarriak
 12:30 Herri gosaria.
 13:00 Herriko haur eta helduen dantzak.
 14:30 Herri bazkaria.
 16:00 Txiki Ikearriya bakarlarria.
 18:00 Txatxilipurdi haurrendako jolas kooperatiboak.
 19:00 Herriko buruhandiak.
 19:30 *Denak itxaa!* Manifestazioa.
 20:00 Atea.
 22:00 Zezensuzkoa.
 20:00-22:00/00:00-03:00 Eztitan taldearekin erromeria.

UNANU**SAN PEDRO FESTAK****EKAINAK 28 Ostirala**

13:00 Txupinazoa eta auzatea.
 13:00-14:30 Trikitixa.
 18:00-20:00 Kharmia.
 19:30-20:30 Trikitixa.
 20:00 Auzatea.
 20:30-22:00/00:30-04:00 Edelweiss.

LIZARRAGABENGOA**FESTAK****EKAINAK 28 Ostirala**

18:00 Festen hasiera. Puzgarriak eta japoniar bonbak.
 18:30 Sakanako Haize Txikiak banda eta jauzizaleen lehenengo topaketa.
 19:30 Auzatea.
 21:30 Afaria.
 23:00-02:30 Musika.


BUSKAPAINDEGIA
BUXEK
 Ongi pasa festak!
 @buxek_ileapaindegia
 www.buxekileapaindegia.com
 Fernando Urkia 1,
 Arbizu
 948 461 698

BIKAIN GARAJEA
 Mekanika
 Elektromekanika
 Serie 100
 pintura prototipoa
 Autokarabana eta furgoneta saila
 Ongi pasa festetan!
 948 460 037 Arbizu

FLORES
 Ongi pasa festetan!
 Utzubar industrialdea Arbizu
 948 460 499
 Nafarroako berezko txistorra

LONBREN DENDA ZURE EGUNEROKO
ONGI IBILI SAN JUANETANI!
 Aliprox
 Tel.: 948 460 330
 Kale Nagusia - ARBIZU

Izan giltzarri!



Ainhoa Juaniz Ezpeleta Z





irku artista

Guei!

Esan didate bideo bat egiteko guaixekoen-tzat, jendea bazkietzeko. Baina aber, eske gu ez gara bazkide, osea esan nahi dut, nik bideoa egin dezaket baina izango da rollo dana posturoo bale?

Orduan igual pentsatzen ari naiz jendea animatuko dugula bazkietzen baina gero guk joan beharko dugu azkar azkar bazkietzera, ez dakit ulertzen didazun... Bueno, hori egin ahalko da Interneten bidez ezta? Esan nahi dut, hauek Guaixeko hauek oso modernoak dira, esan nahi dut, nik egingo dut bideo hau rollo posturoo total eta gero zu ta biok joango gara, bueno, joango gara ez, Interneten bidez egingo dugu bazkietzearena bale?

Aber, Sakanan bazaude, Sakanan bizi bazara, hemen jaio bazara edo jaio ez bazara, ***Izan Giltzarri! Bazkietu zaitetz!*** Baita gu ere Mori, baita gu ere, bale? Benga!



[guaixe.eus/
kideak](https://guaixe.eus/kideak)

Urdiaingo frontoiko lanak aurten egingen dira

Teilatutik uralita kendu eta metalezko xaflak jarriko dituzte haren ordez. Etorkizunean eguzki plakak jarri nahi ditu pilotalekuko teilatuan. Kamioien aparkalekuko eta Teileriako zabaleko sasi garbiketa eginda, Sagardia kalean lanak egiteko laguntza eskatuko du

Alfredo Alvaro Igoa URDIAN

Urdiaingo Udalak aurten 550.000 euroko aurrekontua du. David Oroz Alonso alkateak azaldu duenez, aurten udalak egingen duen inbertsio handiena Elizazpi pilotalekuak hartuko du. Udalak haren teilatua aldatu egingen du: amiantoa duen uralita kendu eta bere ordez metalezko xaflak jarriko ditu. "Proiektua egin genuenean aurrekontua 123.000 eurokoa zen. Baina inflazioagatik materialen prezioa igo egin da eta aurrekontua 180.000 euro ingurukoa da. Hala ere, lana egingen dugu, jaso dugun dirulaguntza baliatuta". Izan ere, Urdiaingo Udalak Nafarroako aurrekontuetatik zuzenean 90.000 euroko dirulaguntza jasoko du lan hori egiteko. EH Bilduk aurkeztutako aurrekontu zuzenketa baten bidez lortu zuen udalak diru hori. Orozek jakinarazi duenez, lanak emateko prozedura hastear dute. Alkateak azaldu duenez, teilatua berriro ondoren, udalaren asmoa



Frontoiko teilatua goian. ARTXIBOA

da han goian argindarra sortzeko eguzki plakak jartzea.

Aurtengo beste inbertsio handiak eginda ditu dagoeneko udalak. Batetik, herriaren iparraldean eraiki duen kamioiendako aparkalekua. Hari lotuta, apar-

katzeari buruzko ordenantza indarrean da dagoeneko. Eta, bestetik, Teileriko zabalean egingako sasi garbiketa. Hori eginda, abeltzainen aziendak bazkatzeko tokia sortu nahi izan du udalak. Gainera itxiturak egin dituzte berez sortu den haritza babesteko. Bargan, berriz, gaztainondo zaharren ingurua pagoak kentzen eta gaztainondo zaharretatik adar berriak ateratzeko lanketa egiten ari da udala.

Orozek jakinarazi duenez, udalak, bere bitartekoekin, etxerako egur loteetara iristeko bideak konponduko ditu. Gauza bera egin du Urriztiraino doan oinezkoen bidearekin. Azkenik, Urdiaingo Udalak Sagardia kaleko sareak eta zorua berriro nahi ditu. "Milioi bat euro inguruko lana da", jakinarazi du alkateak. Nafarroako Gobernuaren hurrengo Toki Azpiegitura Planeko deialdian sartzeko eskaera egingen du atzera ere udalak. Aurreko deialdian erreserban gelditu zen.

Ezker Batuko Altsasuko asanblada desegin da

Nahiz eta batzuk segitu, hainbat kidek afiliazioa utzi dute. Herriko egitura berregin nahi dute

ALTSASU

Hainbat kidek baja eman ondoren, eta zenbait afiliatu gelditzen badira ere, Ezker Batuak Altsasun zuen asanblada desegin egin da gutxieneko afiliatu kopurua ez dagoelako. Nafarroako Ezker Batuaren zuzendaritza berritzekoan bi hautagaitza aurkeztu ziren eta egun dagoenak irabazi zuen. Haren egiteko moldeekin ados ez egoteagatik NEBen baja ematea erabaki zuten Altsasuko kide batzuek. Beste batzuek, berriz, ados egon edo ez, militantziarekin segitzea erabaki dute, besteak beste, NEB beraien hautu politikoa delako. Horiek asanblada berregin nahi dute orain.

Baja eman duena Arturo Carrreño Parra da, 20 urtez zinegotzia izandakoa, eta NEBeko kide 1993tik. Azaldu duenez, "NEBeko zuzendaritza berriak kudeaketa txarra egin du. Iruñeko Kale Nagusiko 30. zenbakian zegoen egoitza ere saldu zuten".

Lizarragako Kontzejuan aginte makila eskuz aldatuta

Kontzejuko hautagaitza osatu zutenek hasieratik: "aurkeztuko gara, baina gutako bakoitzak urte bete egingen dugu kontzejuko presidente karguan". Esan eta egin. San Adrian festak balio izan du herriko bandera sinbolikoki eskuz aldatzeko. Eneko Etxarri Amorinek Lorenzo Nuñez Perezi pasa dio ardura. Orain paperak egiten ari dira.

Artzapezpikua Sakanako apaiz eta fededunekin izan da

Iruñea eta Tuterako artzapezpiku Florencio Rosello Avellanas Sakanan izan zen asteazkenean. Aurrena Aralarko Pastoral Barrutiko ibarreko zortzi apaizekin elkartu zen. Aralarko santutegian izan zen apaizen eta artzapezpikuaren arteko topaketa. Ondoren, elkarrekin bazkaldu zuten gutziek. Rosello Aralarko Pastoral Barrutiko ibarreko fededunekin Uharte Arakilgo Zamartzeko elizan bildu zen arratsaldean. Sakandarrek bizi eta partekatzen duten pastoral errealitatea aurkeztu zioten. Elizan bezperak errezzatu zituzten eta otamen batek eman zion akabera sakanarren eta artzapezpikuaren arteko topaketari.

Familiek Atsedeen hartzeko zentroa

ASTEBURU ETA JAI EGUNETAN 🏠

Narriadura kognitiboa duen edo ez duen adineko pertsona bat zaintzeaz arduratzen diren familien laguntza.

ORDUA: 10:00etatik 18:00etara.

PREZIOA: 50€ eguna

INSKRIPZIOAK: 948 563850

Deskontuak hilabete osoa kontratatzen bada





Maiza eta Vergara. UTZITAKOA

DUATLOIA Maiza eta Vergara, Europako Txapelketan ikusgarri

Larunbatean Europako Duatloi Txapelketa jokatu zen Coimbran (Portugal). Sprint distantzian jokatu zen (5 km korrika-22 km bizikletan-2,5 km korrika).

Sakana Triatloi Taldeko Juan Luis Maizak eta Peio Vergarak sasoi betean jarraitzen dutela erakutsi zuten beste behin. Maiza 55-59 urteen arteko kategorian Europako hamabigarren postuan sailkatu zen, eta Espainiako bigarren (1:04:22). Vergara, aldiz, 65-69 urteen arteko kategorian lehiatu zen, eta Europako Txapelketako hogeigarren postuan sailkatu zen, Espainiako lehena (1:20:14). Bikotea "oso gustura" aritu zen. Gorputzak jarraitzen dien bitartean, aurrera jarraituko dutela argi dute.

LABURREAN

Sakana Group-Alea, onena etxean



TXIRRINDULARITZA

Larunbatean kadeteen mailako Etxarri Aranatz eta Ergoienako Muinoak lasterketa antolatatu zuen Aralar klubak, 64,2 km-ko lasterketa gorabeheratsua. Aitor Matak (Rotxabikes) irabazi zuen, Luca Martinezen (Sakana Group-Alea) aurretik. Zortzigarren Xabier Curiel (Quesos Albeniz) izan zen. Talde onena etxekoa izan zen, Sakana Group-Alea.



Altsasun jokatuako NKJ-etako Binakako Txapelketako hirugarren faseko finalistak, Sakanako txapeldunak tartean. PILOTAJAUKU

Azkona-Arguelles eta Olarra-Zubiria, txapeldunak

PILOTA Pilotari sakandarrek NKJ-etako Binakako Txapelketako hirugarren faseko txapelak jantzi zituzten. Asteburuan Herrien Arteko Txapelketa Absolutuko finalerdiak jokatu dira Altsasun. Herrien Arteko Txapelketa Txikian, Arbizu kanpo geratu da

Larunbatean Nafarroako Kirol Jokoa (NKJ) Binakako hirugarren faseko finalak jokatu ziren Altsasuko Burunda pilotalekuan. Jokatu ziren bost finalerdiak bitan ordezkari sakandarrak izan genituen.

Kimuen bigarren mailako finalen Azkonak eta Arguellesek (Altsasuko Pilotajauku) Berdud eta Lorea (Zugarralde) izan zituzten aurkari. Pilotajaukuko bikoak irabazi zuen, 18-11, partida lehiatuan. Bestalde, kadeteen bigarren mailan, Zubiriak eta Olarrak (Aldabide) merezitako txapela jantzi zuten, Parienteren eta Urrutiaren (Zugarralde) kontrako partida estuan 22-19 gailendu eta geratu.

Arbizu, txapelketatik kanpo

Herrien Arteko Pilota Txapelketa Txikian asteburuan final laurdenak jokatu ziren. Arbizuko Aldabide klubeko pilotariak Baztango klubekoak izan zituzten aurkari larunbatean Elizondon.

Benjaminen mailan, Agerraldek eta Jaurenak (Baztan) Loidi eta Mauduit (Arbizu) 18-11 hartu zituzten mendean. Kimuen mailan, Agesta eta Otxandorena (Baztan) 18-8 gailendu ziren Loiren eta Lopetegiren (Arbizu), eta, haurren mailan, Agestak eta Brañak (Baztan) 18-6 irabazi zieten Mendinuetari eta Urtasuni (Arbizu). Beraz, 3-0 galduta, Arbizu Herrien Arteko Txapelketa Txikitik kanpo geratu da.

Herrien Artekoa, Altsasun

Nafarroako Herrien Arteko Txapelketa Absolutua ere azken txanpan dago. Pasa den asteburuan final laurdenak jokatu ziren, eta asteburu honetan finalerdiak daude jokoan, Altsasuko Burunda pilotalekuan. Larunbatean, 10:30ean, Doneztebe eta Zizur taldeen arteko finalerdia jokatu da, kadeteen, jubenilen eta seniorren mailan. Igandean, 10:30ean, Larraun eta Leitza herrien arteko kanporaketa hasiko da. Kasu honetan ere, kadeteak, jubenilak eta seniorrak lehiatuko dira.

Bi irabazleek txapelketako final handia Iruñeko Labrit pilotalekuan jokatu dute.

Palista sakandarrak Nafarroako Torneoko final handietan

PALETA GOMA Lekunberrin IV. Nafarroako Foru Komunitatea Torneoko finalak jokatu dira igandean

M.B.G. ETXARRI ARANATZ Ekainaren 15ean Emakumezkoen Paleta Gomako IV. Nafarroako Foru Komunitatea Torneoko finalerdiak jokatu ziren Etxarri Aranatz. Bertan Gure Pilota klubeko makina bat palista sa-

kandar lehiatu ziren, finalerdi lehiatu eta borrokatuetan. Zorionez, finalerako txartela lortu zuten gure ordezkari batzuek.

Final handiak Lekunberrin erabakiko dira, igandean, 17:00etan. Navarra Televisionek

eskainiko ditu zuzenean. Kadeteen mailan, Maialen Larraza etxarriarrak eta Julene Inunziagak Elaia eta Irati Zabalza izango dituzte aurkari. Lehen mailakoan, Irati Gartziaienak eta Maria Eguskizak Aroa Arrosagarairan eta Leire Artazkozen kontra jokatu dute, eta eliteen mailan, Irati Igoa etxarriarra izango da ordezkari sakandarra. Espinalekin bikotea osatuta, Gorostiaga eta Quevedo izango dituzte aurkari oso estua aurreikusten den finalean.



Larraza finalean egongo da. UTZITAKOA

Mastersa eta Nafarroako Lau eta Erdia



CAIXABANK MASTERSA ALTSASURA HELDUKO DA

CaixaBank Mastersean, Ezkurdiak Albisurenkin jokatu du, Zabaletak Peñarekin, eta Martijak Jakarekin. Irailaren 15ean, Altsasuko festetan, finalurrekoetarako play-offen bigarren jardunaldia jokatu da Burunda pilotalekuan.



EZKURDIA, NAFARROAKO LAU ETA ERDIRAKO PREST

Sanferminetako Lau eta Erdiko Torneo martxan da. Igandean torneo final laurdena jokatu du Joseba Ezkurdiak Eibarko Astelenan, gaur, ostirala Zabalak eta Egiguren V.ak Urrestillan jokatu duten partidako irabazlearen kontra.



Aimar Araña, eskuinean, promesen mailako podiumean. UTZITAKOA

Aimar Araña, Nafarroako Km Bertikalen podiumean

MENDI LASTERKETAK Etxarri Aranazko korrikalaria promesen mailako hirugarren nafarra izan zen Izaban

M.B.G. ETXARRI ARANATZ

Aimar Araña Martxueta (Sakana Bizirik) mendi korrikalari etxarriarrak Izabako Ardidibepikua Bertikalean parte hartu zuen ostiralean, Camille Extremek antolatutakoa. Proba,aldi berean, Nafarroako Km Bertikalen Txapelketa zen, eta promesen edo 23 urtez azpikoen mailan hirugarren nafar onenaren saria eskuratu zuen, ederki sufritu eta gero.

Korrikalariak binaka ateratzen ziren Izabatik, eta lasterketak Ardidibepikurantz jotzen zuen, Larratza puntara igotzeko (1.587 m), 3,2 kilometrotan 800 metroko desnibel + zuen. "Ez nuen ibilbidea ezagutzen. Topera atera nintzen, eta mendira sartu orduko oso gogorra zela konturatu nintzen" dio Araña. Lehenengo erdian "zati guztia goraka, pikupiku igo nintzen. Horrenbeste denbora puntetan ibilita, hankak ere lokartu zitzaizkidan". Bukaera aldera, zati batean aldapa pixka bat jaisten zen, "eta hor korrika egiteko aprobeztatu zuen jendeak. Nik, aldiz, hankak esnatzeko probestu nuen". Bukaeran, "sekulako aldapa" zegoen. "Eskuak lurrean jarri behar izan nituen aurrera egiteko".

"Izugarri" sufrituta

Ardidibepiku Km Bertikalean 37. sailkatu zen Aimar Araña (45:33), Iñigo Lanz txapeldunarengandik 12 minutu pasara (32:56). Nafarroako Km Bertikalen Txapelketan promesen mailan hirugarren sailkatu zen.

Lortutakoarekin "oso kontentu" dago korrikalari etxarriarra. "Presiorik gabe atera nintzen, entrenamenduak ikusita banekielako ez nengoela joan zen urtean bezain indartsu; ez nago nire punturik onenean. Ekainaren 9an Lakuntza-Aralar ibilbide laburra aurreko urtean urtean baino bi minutu gehiagotan egin nuen, baina ez nengoela horren gaizki pentsatu nuen. Ardidibepiku ez nuenez ezagutzen, ez nuen denbora erreferentziarik. Izugarri sufritu nuen, baina Camilleko podium horrek konfiantza eman dit" aitortu du.

Joan zen urtean Uhartea Arakil Beriain izan zen Nafarroako Km Bertikal Txapelketa. Promesen mailan ere hirugarren izan zen Araña, podiumera igoz, baina bere buruarekin haserre zegoen, ia ordu bat kosta zitzaiolako, denbora okerragoa. Aurtengo Camilleko podiumak zapore ederagoa izan du. "Orain, konfiantzarekin, Triku Traileko ibilbide motzaren bila noa" gaineratu du korrikalariak. Gero bizikletan ibiliko da eta urrian segiko du lasterketen denboraldia.

Bestalde, Xabier Maciasek (3:06:29) eta Irati Azkargotak (3:48:49) irabazitako Camille Extremen (31,6 km) Ander Unzurrunzaga 82. sailkatu zen (4:05:45), eta Aizea Beraza eta Aran Larrañaga 16. eta 17. emakumeak izan ziren (5:09:59). Cannelle Trailen (13 km) Iratitz Berastegi seigarren sailkatu zen (1:25:03) eta Miren Juantorena bosgarren emakumea izan zen (1:38:01).

"Lehen ediziooko ilusio berdinarekin antolatu dugu hamargarrena"

ASIER BELTZA MENDIKUTE TRIKU TRAIL

MENDI LASTERKETAK Ekainaren 30ean Etxarri Aranazko kanpinak X. Triku Traila hartuko du. Ohiko proba eta 10 km-ko laburra prestatu dituzte. Izena ematea, amaitzear

Maidar Betelu Ganboa ETXARRI ARANATZ

Ekainaren 30ean X. Triku Trail jokatu da Etxarri Aranazko kanpinean. Data berezia denez, aurtun mendi lasterketaren inguruan ekitaldi gehiago antolatu ditu Triku Trail taldeak: hitzaldiak, kontzertua eta bestelakoak. Ohiko 21 km-ko probarekin batera, 10 km-ko lasterketa motza prestatu dute, eta aipatu bi probek Euskal Herriko Koparako puntuatuko dute, Nafarroako Lasterketen Rankingarekin batera. Azken lanetan murgilduta, "oso gogotsu eta eskertuta" daudela nabarmendu du Triku Traileko Asier Beltza Mendikutek.

Aurtun hamargarren Triku Traila. Badirudi lehena atzo jokatu zela. Hamar edizio dira, baina 11 urte pasa dira, tardean pandemiagatik jokatu ez zen urtea, 2020a, dagoelako. Aurtengoa hamargarrena izango da, baina lehendabiziko urtean bezalako ilusioa dugu.

Atzera eginda, zergatik bururatu zitzaizuen Triku Traila antolatzea? Karikestuko bizpahiru lagunek, korrikalariak direnak, lasterketa bat egin behar genuela zioten behin eta berriz, eta hala sortu zen. Nafarroako Mendi Federazioa jo genuen, egutegian sartzeko baldintza batzuk bete behar baitira, tartean probak izan beharreko gutxieneko distantziak (21 km-tik gora) eta eskakizunak betetzea, eta hala hasi ginen. **Hasieratik oso harrera ona izan zuen Triku Trailak. Gainera, laster-**

keta ezberdina zen. Mendi garai edo ezagunen inguruan antolatzen ziren lasterketak, baina Triku Trail basoko eta mendiko ibilbide oso gorabeheratsua da.

Hainbat faktorek dute zerikusia Triku Trailen harrera onarekin. Batetik, sekulako suertea dugu Etxarri Aranazko kanpinak dituen zerbitzu eta instalazioekin. Korrikalari askok kanpinean hartzen dute ostatu asteburu horretan, uda da, igerilekuak eta itzala daude, eta familian edo lagunartean egiteko plan boro-bila da. Bestalde, data. Mendi lasterketan denboraldia otsailean hasten da, eta uztailean eta abuztuan geldialdia izaten da. Hortaz, denboraldiko lehen zatiko azkenetako proba izaten da. Eta, azkenik, paisaia eta ibilbidea. Gurea itzal azpian jokatzen den proba da. Lasterketako %90 baino gehiago zuhaitzen azpian izaten da, eta hori gozamen da. Korrikalariak txundituta geratzen dira Haritzen ibilbidetik eta Trikuharrien ibilbidetik pasatzera koan. Gu, agian, ohituta gaude eta ez zaigu horrenbesterako iruditzen, baina kanpotik etortzen direnek izugarri baloratzen dute.

"INGURUNEA, DATA, KANPINEKO INSTALAZIOAK... GURE ARRAKASTAREN ARRAZIOIAK DIRA"

Helmugara iritsi eta zuzenean igerilekura sartzea (igerileku txikia korrikalariendako erreserbatuta egoten da) asko esker-tzen duten bestelako gauza bat da. Kanpineko instalazioek probari mesede handia egiten diote, eta ingurunea bikaina da.

Ibilbidean apenas egin duzue al-daketarik hamar edizio hauetan. Korrikalariak oso gustuko dutelako, urtero hala esaten digute. Triku Trailak arrakasta handia du, baina guk 350 korrikalari-erendako muga mantendu dugu beti. Ez gara sekula pasako, korrikalari zerbiztu ona eman nahi diegulako eta Etiketa Berdea lasterketa etikoen aldeko manifestuarekin bat egin dugulako. Gurea lasterketa etikoa izango dela, hori da hartu dugun konpromisoa, bai ingurumenarekiko eta baita mendizale gisa ditugun balioekiko: korrikalarien elkarrekiko errespetua, eta berdintasuna. Gero eta indar gehiago ematen diogu honi.

Mendi lasterketen booma bizi dugun honetan, lasterketak horrenbeste atera al dira bere onetik?

Izugarri. Nafarroako Federazioan sartuta gaude, gainontzeko mendi lasterketak bezala. Patroako gara. Urtero biltzen gara, egutegia ixteko, eta urtero proba berriak antolatzeko eskaerak daude federazioan, eta erantzuna eman behar zaie. Gu ez gara inor eskaera bati ezezkia emateko, hori argi dut, baina egia da las-



Asier Beltza Mendikutek boluntarioen lana eta aurten garatutako Larrialdi Plana nabarmendu ditu. UTZITAKOA

terketen saturazioa dagoela. Duela bi urtetik hona, larunbatetan eta igandeetan lasterketa bat baino gehiago dago, lasterketak zapatzen ari gara. Gainera, mendi lasterketak antolatzen dituzten enpresak sortu dira, klubak edo taldeak izan beharrean, onura ekonomikoa ateratzea helburu duten enpresak. Negozioa bete-betean sartu da gure munduan. **Mendizaletasunaren berezko balioak galtzen ari direla ere aipatzen da.** Bai, balio asko galtzen ari dira. Jokin Lizeagari gertatu zitzaiona, esaterako, leize batean erori eta segika zituen korrikalariak ez zirela laguntzera gelditu. Nora goaz? Korrikalari asko bestelako mundu batean sartzen ari dira: fisioterapeutak, nutrizionistak, entrenamenduak, material garestia... asko obsesionatu egiten dira. Bestalde, badakigu lasterketa batek ingurumenarendako zer ekartzen duen. Toki beretik ehunka pertsona pasatzen direnean xenda hori autopista bihurtzen da. Horregatik guk ez dugu partaidetza zabaldu nahi. Hau ez da soilik lasterketetan gertatzen. Nola dago San Donatoko igoera? Edo Maiatza? Horregatik guztiatik egin dugu bat Etiketa Berdearekin.

Sakanako lasterketek, orohar, hasierako izpirituari eutsi diote.

Sakanako lasterketen esentzia berdina da, hori egia da, baina inguruan duguna ez dugu ahaztu behar; gauzak ahalik eta hobekien

egin behar ditugu, ingurumena zaindu eta balio etikoak bermatu. **Mendi lasterketa bat antolatzeak lan handia du atzetik.**

Beti esaten dugu Triku Traila uztailaren 1ean hasten dela eta ekainaren 30ean despeditzen dela. Urte osoan gaude bueltaka. Gero eta gauza gehiago lotu behar dira. Baimenak, babesleak lotu, izena-emateak, ibilbidea markatzea, hornidurak eta bestelako guztiak prestatzea... Lana handia da.

Triku Trailen hamargarren edizioa berezia izango da.

Dagoeneko berezia izaten ari da. Maiatzaren 16an "Mendi lasterketak, bizitza propioa hartu duen munstroa. Nora goaz?" hitzaldia antolatu genuen. Uxoia Irigoien eta Jokin Lizeaga mendi korrikalariak eta Gotzon Idirin Etiketa Berdea ekimenaren ordezkariek aritu ziren solasean, Aritz Ganboa artzain eta mendi korrikalariak gidatutako saioan. Oso interesgarria izan zen, arestian aipatutako puntuak izan zituzten hizpide. Bestalde, ekainaren 28an, arratsaldean, Pantxo Balbuena mariatxia ekarriko dugu kanpinera, eta Triku Burger furgoneta jarriko dugu. Ekainaren 29an

"10 KM-KO TRIKU TRAIL LABURRA HARRERA OSO ONA IZATEN ARI DA. OSO POZIK GAUDE"

Triku Trail lasterketari buruzko hitzaldi teknikoak edo *briefinga* eskainiko du Igor Artiedak, eta ekainaren 30ean, lasterketa egunean, 10:30etik 14:00etara gazte-txoendako rokodromoa jarriko dugu. Triku Traila egun polita izaten da, baina aurten politagoa izango da.

21 km-ko betiko lasterketarekin batera, 10 km-ko laburragoa prestatu duzue.

Hamargarren edizioan zerbait ezberdina egite aldera 10 km-ko proba antolatzea erabaki genuen. Korrikalari guztiei dago zabalik, eta Euskal Herriko Kopan juniorren eta kadeteen sailkapenean puntuatu nahi dutenek bertan parte hartu beharko dute. Lasterketa herrikoia da, eta harrera oso ona izaten ari da; pozik gaude. Antolakuntzari begira, ez digu zailtasun eta lan gehiegirik eskatu. Izan ere, Triku Trailen ibilbideak 8 zenbakiaren itxura dauka. Hortaz, laburrekoek distantzia erdia egin dezatela, eta luzekoek aurrera segi dezatela.

Aurten Triku Trail Euskal Herriko Koparako baliagarria denez, horrek korrikalari gehiago erakarriko ditu?

Bai. Izena emateak %87an gaude, eta gaur, ekainaren 21ean itxiko da epea (Kronoak). Proba nagusian 350 korrikalari muga dugu, beti bezala, eta laburrean 150ekoa. Ez dakit guztiz beteko diren, baina gertu ibiliko gara. Aurten saltsa gehiago izango dugu. 9:30ean 21 km-ko probako korrikalariak



Triku Trailak 10 edizio beteko ditu

Ekainaren 30ean jokatu den Triku Traila probaren hamargarren edizioa izango denez, logotipoan behar bezala jaso dute urtemuga berezia.

da, baina egia da eurak gabe ezingo genukeela Triku Traila aurrera atera. Korrikalariak ere seguruago sentitzen dira kamiseta fosforitodun boluntarioak ikusterakoan, babestuago. Asko eskertzen dute jendea ikustea, mendiko ibilbidean ongi doazela sentitzen dute.

Mendiko lasterketa batean seguru sentitzea gauza handia da.

Jakina. Ildo honetan, aurten Larrialdi Plana asko sakondu eta landu dugu, eta nabarmendu nahiko nuke. Gauzak ongi egiten saiatzen gara, baina ez gara konturatzen arrisku larri edo istripu serio bat gertatzen bada denbora azkar pasatzen dela. Korrikalariak federatuta daude, aseguratuta, guk aparte beste aseguru bat egiten dugu, erantzukizun zibila dugu... Baina gerta daitezkeen balizko egoera guztietarako prest egon behar dugu, lasterketa mendian jokatzen delako. Horregatik, aurten garatu dugun Larrialdi Planean lasterketako puntuen lokalizazioa jaso dugu, GPS-arekin koordenada guztiak hartuta. Gune bakoitzeko arduradunaren izena-abizenak eta telefono kontaktua jaso ditugu planean, eta puntu bakoitzera zein garraio iristen den zehaztu: ambulanzia, 4x4 ibilgailua, quada... Puntu bakoitzetik ebakuazio bat egin behar bada, zein den ibilbide laburrena jaso dugu, eta bertatik kanpinera edo osasun etxera dagoen distantzia. Helikopterorako ere heliportua zehaztu dugu, Etxarri Aranazko futbol zelaia izango dena. Beraz, ibilbideko puntu guztiak lokalizatuta daude euren koordenadekin eta dituen arduradunekin, eta ebakuazioa egiteko modu azkarrenak oso zehaztuta daude. Jakina, Foruzainekin, DYA-ko arduradunekin eta bestelako osasun arduradunekin partekatuko duguna. Halako istripu larririk sekula ez gertatzea espero dugu, baina badaezpada, guztia ahalik eta hobekien lotuta izatea garrantzitsua da, eta hala egin dugu. Gure kide batek sekulako lana egin du Larrialdi Plana gorpuzteko, puntu guztietara joan baita koordenadak hartu eta guztia lotzera. Lan hori betirako hor egingo da. **Triku Trailak hamar edizio; beste horrenbeste etor daitezela.**

Jakina! Taldean aldaketak egon dira urte hauetan. Egun, sei gara taldean finkoak garenak, eta gero boluntarioak batzen zaizkigu. Gogotsu gaude, ilusioz.

aterako dira, 9:45ean 10 km-ko proba laburrekoak, eta segidan Trikutxiki lasterketan duten haurrak. Dena jarraian izango da, ez dugu aspertzeko astirik izango.

Sakandarrek beti parte hartzen dute Triku Trailean.

Asko, eta aurten gehiago. 10 kilometroko proba laburrean Sakanako jende asko dago. Triku Traileko boluntario dezentek ere bertan eman dute izena.

Zenbat boluntario behar dituzue lasterketa egunerako?

Asko, 100dik gora. Mendian 100 boluntario egoten dira, eta horri kanpinean lanean dagoen jendea gehitu behar zaio: dortsalak, irteera eta helmuga, krono lanak, hornidura gunea, kontsigna, korrikalarien-poltsak, ambulanziaz... Boluntarioak goizean goiz etortzen dira kanpinera, kamiseta fosforitua jantzi, eta bakoitza bere lan gunera doa, txintxo-txintxo. Gune bakoitzeko arduradunak walkie talkie-a hartzen du, eta bakoitzak badaki zein den bere egitekoa. Euren lana oso barneratuta dute, eta seriotasunez hartzen dute. Oso eskertuta gaude boluntarioekin, beti. Topikoa

"BOLUNTARIOEKIN OSO ESKERTUTA GAUDE, TRIKU TRAILA OSO SERIO HARTZEN DUTELAKO"

Kintana, Estarriaga eta Mendieta, podiumean

ATLETISMOA Nafarroako Atletismo Txapelketa absolutuak urre bat eta bi brontze utzi ditu Sakanan

June Kintana Larraza disko jaurtitzaitzaileak ezin izan du Europako Atletismo Txapelketan parte hartzeko ametsa gauzatu, baina beste helburuekin jarraitu du aurrera. Ekainaren 15ean Nafarroako Atletismo Txapelketa absolutuak jokatu ziren Larrabiden, eta bertan lehiatu zen. Atleta bakaikuarrak (Grupompleo Pamplona Atletico) urrea lortu zuen (53,58 m), Angela Ferreira (41:05 m) eta Aisha Bencheikh (38,77 m) dominadunen aurretik. Leongo Teknikazio Zentroan Kintanaren taldekide den Andrea Alarconek (Catalunya) bigarren marka onena egin zuen, 47,86 m, baina ez zuen Nafarroako Txapelketarako puntuatu.

Bestalde, Asier Estarriaga Navarrok etxarriarrak (Hiru Herri) 5.000 metroko lasterketan brontzea lortu zuen (16:21.07), Andoni Acebedoren (15:52.92) eta David Perezen (16:14.30) atzetik sailkatu eta gero.

Ruben Mendieta Alegria olaztiarra (Atletismo Albacete) 800 metrotan lehiatu zen. Nafarroako brontzezko domina lortu zuen (1:53.88), Mikel Calvoren (1:52.48) eta Aitor Beorlegiren (1:53.63) atzetik sailkatuta. Beste hainbat sakandar lehiatu ziren Larrabiden, baina ez ziren finalista izan.



Ziordiko Lasterketa Solidarioa proba nagusian parte hartu zuten korrikalariak talde argazkia atera zuten.

Ziordia, kirola eta elkartasuna

ATLETISMOA Ziordiko Running taldeak antolatutako lasterketa solidarioak 303 partaide izan zituen. 1.600 kilo elikagai jaso ziren Paris 365 jantoki sozialerako, eta Markelekin Aurrera fundazioaren aldeko zozketako txartela guztiak saldu ziren

Maidar Betelu Ganboa ZIORDIA Larunbateko eguraldi onak are gehiago girotu zuen Ziordiko Lasterketa Solidarioa. Aurten hamaikagarren edizioa zen, eta Ziordiko Running taldeak antolatutako probaren balorazio ezin hobea egin du Jose Ramon Ramirez Perez taldeko arimak.

Guztira 303 partaide izan zituen Ziordiko probak. Helduen lasterketan eta oinezko martxan 204 helduk parte hartu zuten, eta kategoria txikiko lasterketetan 98 neska-mutikok. Asko kanpotik etorri ziren. "Gurea lasterketa solidarioa denez eta hainbat fundazio laguntzen ditugunez, euren sare sozialetan asko mugitzen dute ekimena. Bertako korrika-

lariez gain, Girona, Manresa, Madril, Zaragoza, Logroño eta Valladolideko partaideak izan ditugu" nabarmendu du Ramirezek.

1.600 kilo elikagai, errekorra Ekimen solidarioetan jasotakoarengatik eskertuta zegoen antolakuntza. Korrikalariak izena ematearen truke elikagaiak eraman behar zituzten, helduek lau kilo eta txikienek bi. Aurten 1.600 kilo jaso ziren, Paris 365 jantoki sozialak jaso eta Iruñera eraman zituenak. "Errekorra apurtu dugu. Normalean urtero 1.000 kilo jasotzen ditugu, pare bat urtetan 1.500 kilora iritsi ginen, baina inoiz ez 1.600 kilora. Urte haue-

tan guztietan 13.000 elikagai kilo bildu ditugu jantoki sozialerako, eta oso pozik gaude".

Ziordiko lasterketan guztia elkartasunera bideratzen da. Duela zazpi urte fundazio eta elkarten aldeko zozketak egiten hasi ziren. Sariak lotu (aurten 48 sari ziren), eta txartelak sartzen dituzte. Aurten jasotakoa Aurrera Markelekin fundaziora bideratu zen, Markel Carmona GNA01 gaixotasun ultra arraroa duen haur urnietarra laguntzeko. "6.000 txartel genituen saltzeko, eta urtean barna zuzenean eta online saldu ditugun txartelez gain, lasterketa egunean geratzen zitzaizkigun azkenak saldu genituen. Fundazioak ere postua

jarri zuen. Guztira 6.600 euro inguru jaso dituzte. Markelek behar dituen tratamenduetarako, primeran etorriko zaie".

Ziordiko lasterketan kamiseta gorriak ikus zitezkeen. Duchenne gihar-distrofia fundazioak jarri zituen salgai, beste postu batean. "Abuztuaz Azeptian kanpamendua antolatu dute, eta gastuak finantzatzeko postua jarri zuten. 600 euro inguru lortu zituzten, eta kontentu zeuden".

Finean, eguraldi ona, eta giro ona. "Korrikalariak, eta fundazio eta elkarteak, guztiak oso kontentutu". Ramirez ere "oso pozik" zegoen. "Gurea bezalako herri txiki batera 300 korrikalari baino gehiago etortzea eta fundazioek horrenbeste behar duten laguntza jasotzea... ni neu ere hunkituta nago" aitortu zuen.

Sakanako Atletismo Kopa

Haurren lasterketak oso alaiak izan ziren, baita helduen ere. Ziordiko paraje zoragarrietan barna 6,8 km osatu zituzten. Alberto Diaz izan zen garailea (23:59), Ekhi Congil etxarriarraren aurretik (24:13). Aritz Etxeberria altsasuarra bosgarren sailkatu zen (24:48). Emakumezkoetan, Lucia Garate (27:01) gailendu zitzaion Diana Vecillasi (27:12). Lehen sakandarra Erkuden San Martin (32:53) etxarriarra izan zen.

Ziordiko Sakanako Atletismo Koparako puntuagarria zen bigarren lasterketa zen. Momentuz, gizonzkoetan Ekhi Congil, Imanol Guerrero Ivan Sobredo eta Aritz Etxeberria daude buruan, eta emakumezkoetan Erkuden San Martin, Sarabe Arakama, Noemi Cordero, Maialen Unanua eta Maite Zabaleta. Ergoienako Birak eta Zubeztia Lasterketak erabakiko dute kopa.

Iker Gomezen zortzigarrena

TXIRRINDULARITZA Igandean Eibarren jokaturako San Juan Sari Nagusian Iker Gomez altsasuarra ikusgarri aritu zen, eta esprintean gailenduz denboraldiko bere zortzigarren garaipena lortu zuen, eta mendiko sailkapena. Garaipen hauei Espainiako selekzioarekin Baron Sari Nagusian (Italia) lortutako taldekako erlojupeko garaipena gehitu behar zaio.



UTZITAKOA

Ane kopako podiumean

TXIRRINDULARITZA Asteburuan Espainiako Kopako baliagarriak diren bi lasterketa jokatu ziren Murtzian eta Valentzian, eta bietan Ane Berastegi junior arbizuarra (Beratxa) hirugarren sailkatu zen. Kopako sailkapen orokorrean ere hirugarrena da. Bere taldekide Siets Goikoetxea ere bikain aritu zen. Beratxak taldekako sailkapena irabazi zuen Murtzian.



UTZITAKOA

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 21

ETXARRI ARANATZ Festa.

San Donato eskolaren ikasturte amaierako jaia.

GOIZEAN zehar, Sakana Herri

Eskolako pankarta margotu.

13:00 Seigarren mailako ikasleei agurra eta opariak ematea.

14:30 Haurrendako bazkaria.

15:00 Helduen bazkaria.

15:00-17:00 Puzgarriak.

17:30 Patinaje eta dantza erakustaldia.

18:00 Belaunaldien arteko kirol proba, aurpegia margotzeko tailerra eta ponpak. Beroa egiten badu jolasak eta ur gerra.

IRURTZUN Kontzertua.

Jo&Swiss Knife country taldearen kontzertua.

19:00etan, Gernika plazan.

ALTSASU Dantzaldia.

Jauzi taldearen dantza emanaldia. 19:15ean, Foru plazan.

IRURTZUN Afari solidarioa.

Palestinarekin afari solidarioa, Iratxok antolatuta. Ondoren, Gazako uraren kutsaduraren inguruko escape rooma. Onuraduna: UNRWA.

21:00etan, Iratxo elkartearen.

LARUNBATA 22

HIRIBERRI ARAKIL Eguna.

Albira igoera: goian paellak prestatu, bazkaldu, karta txapelketa eta futbol partidua.

08:30ean, heritik.

ALTSASU Txirrindularitza irteera.

Barranka Txirrindularitza Taldearen talde mistoaren irteera: Satrustegi, 57 kilometroko ibilbidea.

08:30ean, Zumalakarregi plazan.

IRURTZUN Motorren erakusketa.

Espaciobiker motorzaleen hamabosgarren urteurrena.

09:00 Izena emate irekiera, eskolaren patioan.

10:30 Motorrekin ibilbidea.

14:30 Bazkaria, Matxain jatebixean

18:00 Kontzertua, zozketak eta motor jolasak.

ALTSASU Pilota txapelketa.

Herrien Arteko Txapelketako kadete, gazte eta senior finalak:

Doneztebe – Zizur.

10:30etik aurrera, Burunda frontoian.

LAKUNTZA Tailerra.

Kangoo Jumps zapatak probatzeko tailerra.

12:00etik 15:00etara, plazan.

ETXARRI ARANATZ Kontzertua.

Etxarri Aranazko Abesbatza Txikiaren ikasturte amaierako kontzertua.

18:00etan, Andra Mari ermita.

ALTSASU Dantza ikuskizuna.

Haria Irantzu Gonzalez Dantza Eskolako gazte eta helduen taldeen ikasturte amaierako jaialdia.

18:00etan eta 20:00etan, Iortia kultur gunean.

IGANDEA 23

ALTSASU Txirrindularitza irteera.

Barranka Txirrindularitza Taldearen BTT taldearen irteera: Urkillako mendizerra, 70 kilometroko ibilbidea.

08:00etan, Zumalakarregi plazan.

IRAÑETA Motoziklismo lasterketa.

Endurocross Irañeta lasterketa.

09:00-09:30 Egiaztapenak.

09:45 Pilotuen briefinga.

10:00 Lasterketaren hasiera.

13:30 Sari banaketa.

ALTSASU Azoka.

Ganbarazelai bigarren eskuko azokaren bigarren edizioa. Ekhiñe eta Irati abeslariaren emanaldia, pintxo potea eta musika. Proiektuak elkarteak antolatuta.

09:00etik aurrera, Iortia zabalgunean.

ALTSASU Pilota txapelketa.

Herrien Arteko Txapelketako kadete, gazte eta senior finalak: Larraun - Leitza.

10:30etik aurrera, Burunda frontoian.

OLATZAGUTIA Txirrindularitza lasterketa.

Olatziko Eskolarteko eskolen mailako lasterketa. 1.200 metroko zirkuitua. Burunda Txirrindularitza Taldeak antolatuta.

10:30etik aurrera, Urbasako etorbidean.

ASTELEHENA 24

ALTSASU Elkarretaratzea.

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa. 12:00etan, udaletxearen aurrean.

ASTEAZKENA 26

LAKUNTZA Ikuskizuna.

Mariatak Zirkus Zirika Zirkus konpainiaren ikuskizun berriaren mustutzea: antzerkia, zirkua, umorea, ahizpatasuna eta maitasuna.

19:30ean, plazan.

OSTEGUNA 27

IRURTZUN Kontzertua.

Ane Martija bakarlariaren kontzertua.

20:00etan, Pikuxar plazan.



JUANPE HIGUERO

ETXARRI ARANATZ Indusen ibilbideak Himalaiatik Karatxira. Pakistan, begirada sozial bat erakusketa. Ekainaren 11tik 23ra. Liburutegian.

JAIOTZAK

- Ioar Santesteban Garcia, ekainaren 13an Irurtzunen
- Odei Noveleta Sarasola, ekainaren 14an Irurtzunen
- Ilyas Najmji Ahzili, ekainaren 16an Altsasun

EZKONTZAK

- Endika Mendinueta Iribarren eta Itxaso Mendoza Latasa, ekainaren 15ean Arbizun

HERIOTZAK

- Jose Larraz Esparza, ekainaren 11n Altsasun
- Severa Galarza Garro, ekainaren 14an Irurtzunen
- Primitivo Zubeldia Turunbai, ekainaren 14an Lakuntzan
- Maria Lucia Goikoetxea Lanz, ekainaren 14an Olatzagutian
- Rosario Erro Arregi, ekainaren 15ean Lakuntzan
- Jose Carlos Perez Goizueta, ekainaren 18an Irurtzunen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

ESKELA

Migel Berastegi Arbizu

(Arbizun hil zen 2024ko ekainaren 10ean)

Isilian, bat batean utzi gaituk
Agur eta ohore, Migel

Haren oroimenez gogoraketa ekainaren 26ean,
goizeko 11:00etan Zizkarten, Beriain magalean egingo dugu.

Hire betiko lagunak

"Familiyan partetik gui eskerrik gogokoona, bei egun huetan guigana gerturetu zaieno, bei Migel eta gu goguen izendu gaittuzubienoi"

ESKELA

Primitivo Zubeldia Turumbay

'Txirrikitin'

Eskerrik asko
zure eskuzabaltasunagatik

'Banaezinak'
Igantzin, 2024ko ekainaren 16an

ESKELA

Rosario Erro Arregi

(Luis Flores Anduezaan alargune)

Goguen man ttuzu Aalar ta Beriain mendiye(k)
ta biyotzien Lakuntza herriye.
Betiko

Flores Arregi Fameliye
Iruñea - Lakuntza 2024ko ekainaren 15a

OROIGARRIA

Aitzarte Barandiaran Garcia

IV. urteurrena

Ez dago agurrik gure artean.
Zauden tokian zaudela,
beti egongo zara nire bihotzean.

Zure familia

OROIGARRIA

Aitzarte Barandiaran Garcia

IV. urteurrena

Gure zati bat eraman zenuen eta gure
bihotzetan zaude betiko.
Ez zaitugu ahazten
Maite zaitugu
Leire eta zure seme Oihan



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€
prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Arbizuko kiroldegiko taberna errentan hartzeko enkantea: Garilaren 1ean egingo da enkantea, plegu itxiko sistema bidez, hasierako prezioa 425 eurokoa da (BEZ gabe) hilabetero. Proposamenek kudeaketa eta esplotazio plana ere izan beharko dute. Deialdiari buruzko informazio guztia www.arbizu.eus web orrian dago.

LEHIAKETA

Zurrumurruen kontrako ipuin laburren V. Lehiaketa: Aniztasunean elkarbizitza sustatuko duen istorioa sortu eta lehiaketan parte hartzera gonbidatuta zaude Mank-en Anizartean zerbitzuaren eskutik. Bidali zure ipuina

anizartean@gmail.com helbide elektronikora uztailaren 30a baino lehen. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian. Zalantzak 648 070 710 telefonora deituz.

IKASTAROK

Igeriketa ikastaroak Irurtzunen: Asteleheneetik ostegunetarako goizetan izanen dira, garilaren 1etik 31ra. Izen ematea garagartzaroaren 26an amaitzen da, www.irurtzun.eus web orrian edo Udaletxera gerturatuta. Argibide gehiago 948 600 412 telefonon.

Igeriketa ikastaroa Lakuntzako igerilekuan: uztailaren 1etik 31ra, asteleheneetik ostiralera burutuko da. Izen ematea Udaleko webgunean, ekainaren 24ra arte, www.lakuntza.eus-en.

Nafar Lansare-k ikastaro hauek antolatu ditu Altsasuko LH institutoan: Espazio irekietako eta industria-instalazioetako garbiketa ikastaroa (130 ordukoa, irailaren 9tik urriaren 14ra arte, 09:00etatik 14:00etara) eta industria ekipoen mantentze eta muntaia mekanikoa (70 ordukoa, urriaren 10etik 31ra, 15:30tik 20:00etara). Izena emateko enplegu zerbitzuan galdetu.

OHARRAK

Arakilen aisialdi campusean izena emateko epea zabalik: Asteleheneetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara adin tarteka banatuta izango dira. Izena emateko epea ekainaren 24an amaitzen da. Informazio gehiago eta izen ematea 634 584 226

edo 948 500 101 telefonon, edo arakilkultura@gmail.com helbidera idatziz.

Bi autobus ordutegi bertan behera ekainaren 22tik aurrera: La Burundesa jakinarazi duenez, Olaztiatik Iruñara astegunetan, 06:30ean abiatzen den busa eta Iruñetik Olaztira astegunetan, 11:45ean abiatzen den busa bertan behera geldituko dira.

Aralar aingeruari haurrak aurkeztea: Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiak Aralarko Aingeruari Haurren Aurkezpena antolatu du. Ekainaren 30ean, igandean, eguerdiko 12:30ean. Aldez aurretik izena ematen dutenek elizkizunaren ondoren umeen izen-abizenak grafia ederrez idatzitako pergaminoa

jasoko dute. Horretarako, santutegiko sakristian edo dendan eman behar da izena.

Gurutze Gorriak Altsasuko Otadia aterpearen laguntzeko boluntarioak behar ditu: Errefuxiatuei gaztelaniako klaseak emateko astean behin edo bitan eta haurrek jolas jarduerak egiteko. Astean bitan bitan abiatzen den abuztuaren. Gurutze Gorriarekin harremanetan jartzeko 617 351 603 telefonora dei dezala edo aterpetik pasa dadila.

Etzarri Aranazko Abesbatza Txikiak zure aho-tsa behar du: 6-15 urte bitarteko haurrez osatuta dago abesbatza eta kide berrien bila dabil. Interes duenak harremanetan jar dadila corotxikis@gmail.com helbidera idatziz. Informazio gehiago

www.coraldebarrarianaz.com web orrian.

SOS GAZA. Gernika-Palestina herri ekimenak Yala Nafarroa plataformarekin batera Elkartasun Aktiboa inizatiba martxan jarri du: Netanyahu nazioarteko epaileen aurrean eramateko, Gazan elkartasuna proiektuak bultzatzeko Mundubat GKE-ren bitartez eta Palestina leku guztietan ikusarazteko. Ekarpen ekonomikoa egiteko, Nafarroan ES36 3035 0083 2808 3014 0037 kontu korrontean dirua sar dezakezu, edo zure bankearearen aplikazioaren bitartez BIZUM EMN/DONAR atalean Mundubat Fundazioa bilatu eta 08737 kodea erabilieta dirua eman.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

"Betidanik"

☎ 948 19 70 70

📧 @Grupolrache

📱 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es



2024ko Maria Markotegi eta Nanoipuin literatur lehiaketaren saridunak.

Euskarazko literatur sustraiak sortzen

Ekainaren 14an Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak antolatzen dituen Maria Markotegi eta Nanoipuin lehiaketaren sari banaketa izan zen, lortian. Haur eta gazteendako eta euskara ikasleendako sariketak dira eta aurten 800 bat lan aurkeztu dituzte

SAKANA
Pantailez betetako gizarte batean, ia 800 lagunek bere denboraren tarte bat hartu dute euskaraz

sortzeko. Hala esan zuten Sakanako Mankomunitateko Euskara zerbitzuak urtero antolatzen duen Maria Markotegi eta Na-

noipuin literatur lehiaketaren sari banaketan. Aurten, guztira, 743 lan aurkeztu dira haur eta gazteen sariketaren eta 68 lan euskara ikas-

ten eta Mintzakiden parte hartzen dutenen Nanoipuin lehiaketan. Sari banaketa ekitaldia ekainaren 14an egin zuten, Altsasuko Iortia kutur gunean.

Maria Markotegi lehiaketa Sakanako ikasleei zuzendutako literatur sariketa da, eta euskarazko sormena sustatzeko helburua du. Lau sail ditu: booktubea, narrazioa, poesia eta komikia, eta lau mailatan banatzen da: LH hirugarren eta laugarren mailak, LHko bosgarren eta seigarren mailak, DBHko lehenengo eta bigarren mailak eta DBHko hirugarren eta laugarren mailak. Booktubeen kasuan DBH lehenengo mailatik gorako gazteek parte har dezakete bakarrik, bideoak YouTubean agertu ahal izateko gutxienezko adina izan behar dutelako.

Sakanako ikastetxeek parte hartu dute: Altsasu BHI, Andra Mari ikastola, Arbizuko herri eskola, Arrano Beltza ikastetxe publikoa, Atakondoa ikastetxe publikoa, Domingo Bados ikastetxe publikoa, Iñigo Aritzeta ikastola, Jesusen Bihotza ikastetxea, Lakuntzako Herri Eskola, San Donato ikastetxe publikoa, San Migel ikastetxe publikoa, Urdiango Herri Eskola eta Zelandi ikastetxe publikoa.

2024ko edizioan 405 narrazio aurkeztu dira, 66 lan poesia sai-

lean, 48 booktubea eta 224 komiki. Emaipaimahaia Toñi Lopez eta Izaskun Etxeberria literaturan, Joxemari Morcillo eta Olatz Al-dasoro komikian eta Katrin Ginea eta Aitor Karasatorre booktubean izan dira. Sariak mailaren arabera dira: Sakanako liburu dendetan erabiltzeko 50 eurotik 110 eurora bitarteko txartela. Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak 2.730 euro banatu ditu lan onenak saritzeko; guztira, 33 lan. Parte hartzaile guztiek oparitxoak jaso dute.

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak ere euskaltegi-tako ikasleei eta Mintzakideei zuzendutako Nanoipuin lehiaketa antolatzen du. Hiru maila ditu: A1 eta A2 mailako ikasleak; B1 mailako ikasleak bigarren mailan parte har dezakete, eta hirugarren maila B2 eta C1 mailako ikasleendako da. Mintzakideko parte hartzaileek duten ezagutzaren pareko mailan parte hartzen dute. Guztira, 68 lan aurkeztu dituzte: lehenengo mailan 24; bigarren mailan 17, eta hirugarrenean 27. Epaimahaikideak Monika Etxeberria eta Garbiñe Petriati izan dira, eta sariak Sakanako liburu dendetan erabili ahal izateko 150 euroko txartelak izan dira. Lau lan saritu dituzte.

Saridunak

Maria Markotegi lehiaketa BOOKTUBE SAILA

DBH 1. eta 2. | 90 euroko txartela

- *Hormak*, Edorta Amillano Goikoetxea (Altsasu). Iñigo Aritzeta ikastola.
- *Onin eta koiki madarikatua*, Anitz Anda Landa eta Bidane Fdez. de Garaialde y Lazkano Dorronsoro (Altsasu). Iñigo Aritzeta ikastola.

- *Arrain hezur bat eztarrian*, Izaro Santano Azpeitia eta Alaine Mendia Asensio (Altsasu). Iñigo Aritzeta ikastola.

DBH 3. eta 4. | 110 euroko txartela

- *Bai baina ez baina bai*, Hegoa Eguren Sanz (Bikuña). Iñigo Aritzeta ikastola.
- *Sasieskola*, Mikel Arrizabalaga Gartziandia (Altsasu). Iñigo Aritzeta ikastola.
- *Luaren itzala*, Intza Anton Flores (Altsasu). Iñigo Aritzeta ikastola.

KOMIKI SAILA

LH 3. eta 4. | 50 euroko txartela

- *Laguntasunaren oparia*, Izaro Maiza Ruiz (Uhartea Arakil). Paz de Ziganda ikastola.
- *Oilo baten bizitza*, Luar Mendiburu Zabaleta (Etxarri Aranatz). Andra Mari ikastola.

- *Jon eta Ben playmobilen munduan*, Aratz Beltza Serreno (Arbizu). Arbizuko Herri Eskola.

LH 5. eta 6. | 70 euroko txartela

- *Gaurko irudiek iragana dute*, Amelie Alonso Nuñez (Iturmendi). Andra Mari ikastola.

- *Gaur egungo gazteak*, Roke Garmendia Toyos (Etxarri Aranatz). San Donato IP.

DBH 1. eta 2. | 90 euroko txartela

- *Mirenen historia*, Irati Garmendia Diaz de Garaio (Bakaiku). Andra Mari ikastola.
- *Hegan egin nahi zuen txoria*, Amets Loiarde Erauskin (Etxarri Aranatz). Andra Mari ikastola.

DBH 3. eta 4. | 110 euroko txartela

- *Madarikazioa*, Tania Otero Madinaveitia (Iturmendi). Altsasu BHI.
- *Itxura berdina bihotz desberdina*, Rahima Gelti Guerrouj (Lakuntza). Altsasu BHI.

POESIA SAILA

LH 3. eta 4. | 50 euroko txartela

- *Nire...*, Nahiane Agirre Martin (Altsasu). Iñigo Aritzeta ikastola

- *Aitite Peio, familiakoa baino gehio*, Izaro Maiza Ruiz (Uhartea Arakil). Paz de Ziganda ikastola.

LH 5. eta 6. | 70 euroko txartela

- *Uda*, Aritz Errazkin Saizar (Etxarri Aranatz). Andra Mari ikastola.
- *Zer da hori?*, Anartz Andueza Martin (Altsasu). Iñigo Aritzeta ikastola
- *Pala*, Katixa Sasiain Iraurgi (Etxarri Aranatz). Andra Mari ikastola.

DBH 1. eta 2. | 90 euroko txartela

- *Gerra*, Amañur Beraza Petriati (Etxarri Aranatz). Andra Mari ikastola.
- *Denbora gutxi, amets asko*, Nagore Azanza Bergera (Etxarri Aranatz). Andra Mari ikastola.

DBH 3. eta 4. | 110 euroko txartela

- *Bihotzaren oihartzun hutsa*, Kimetz Flores Zudaire (Altsasu). Iñigo Aritzeta ikastola.
- *Kutxa bat oroitzapenean*, Intza Flores Anton (Altsasu). Iñigo Aritzeta ikastola.

NARRAZIO SAILA

LH 3. eta 4. | 50 euroko txartela

- *Etxe-txiki*, Miren Malpartida Plaza (Altsasu). Zelandi IP.
- *Izaki arraro onena*, Iñaki Mazkarian Irisarri (Iturmendi). Arrano Beltza IP.

LH 5. eta 6. | 70 euroko txartela.

- *Xubanen sekretua*, Oñeka Gastamintza Perez (Ziordia). Iñigo Aritzeta ikastola.
- *Siberian elurretan*, Elene Razkin Igoa (Arbizu). Arbizuko Herri Eskola.

DBH 1. eta 2. | 90 euroko txartela

- *Kolpez kolpe*, Adrian Ramos Azurmendi (Agurain). Andra Mari ikastola.
- *Geltokiak*, Lur Beltza Zia (Etxarri Aranatz). Altsasu BHI.

DBH 3. eta 4. | 110 euroko txartela

- *Gurea dena, gurea da*, Irati Loiarde Erauskin (Etxarri Aranatz). Andra Mari ikastola.
- *Malkoak*, Izai Igeltz Irizar (Ziordia). Iñigo Aritzeta ikastola

Nanoipuin lehiaketa

Saria: 150 euroko txartela

1. maila (A1 eta A2)

- *Lurrean bezala*, zeruan ere bai, Luis Besga Baltierra (Olatzi).

2. maila (B1)

- *Munduko pastelik onena*, Isabel Gallego Marinez (Iruztzun)

3. maila (B2 eta C1)

- *Otsa gosetube*, Nieves de Esteban Astiz (Etxarri Aranatz)
- *Bitartekaria*, Eduardo Huarte Huarte (Hiriberri Arakil)

Eva Azpilikueta'ren '104. haurra' Erriberrin

Antzerki jaialdiaren 25. urteurrena izanen da aurten, eta 27 emanaldi izanen dira; tartean aktore altsasuarraren antzezlanaren emanaldia izanen da, Tafallako Kuturgunean. Jorge Cordon irurtzundarrak sortutako musika ere izanen da

SAKANA

Erriberriko Antzerki Jaialdiaren 25. urteurrena izanen da aurten. Uztailaren 19tik abuztuaren 4ra ospatuko da, eta musika, dantza, zirku eta antzerki diziplinetako 27 emanaldi egonen dira. Erriberrin ez ezik, Tafallan, Beiren, San Martin Unxen eta, lehenengo aldiz, Pitillasen ere izanen dira jaialdiko egoitzak. Ikuskizunaren emanaldiak ez ezik, jaialdiaren barruan bi sormen egoitza, lau formakuntza tailer eta artista eta kazetarien arteko bi topaketa ere egonen dira, eta urteurrenaren harira gala bat, hiru mahai inguru eta hiru erakusketa ere izanen dira Jaialdian emanen diren antzezlanen artean Eva Azpilikueta Martinez altsasuarraren *104. haurra* dago, Yarleku konpainiarekin. Bestetik, presentzia sakanarra, La Banda teatro circoren konpainiaren *Yugen* ikuskizunarekin; Jorge Cordon *Iortx* irurtzundarrak ikuskizunaren musika sortu du.

Rebeca Esnaola Kultura, Kirol eta Turismo kontseilariak jaialdiaren aurkezpenean esan zuen urteurrenaren ospakizunak festibalaren "barnean" lan egiten dutenei eta Erriberriko herritarrei omenaldia izanen dela, "urtero jaialdia hartzeagatik eta zaintzeagatik". Jaialdiaren his-



Erriberriko antzerki jaialdiaren aurkezpena. NAFARROAKO GOBERNUA

torian emakumezkoek izan duten presentzia ere goraipatu zuen kontseilariak. Aurkezpenean Ane Pikaza eta Maria Goiricelaya jaialdiko arte zuzendariak, Lorenzo Garcia Echegoyen eta parte hartuko duten konpainietako kideak egon ziren, tartean Eva Azpilikueta.

Aktore altsasuarrak Erriberriko jaialdiaren 25. urteurrenaren parte hartuko du *104. haurra* antzezlanarekin. Tafallako Kuturgunean izanen da, uztailaren 26an, ostirala, 20:00etan. Sarrerak dagoeneko salgai dau-

de. Jokin Oregik idatzi eta zuzentzen du 104. haurra familiar-teko pieza. Umezurztegi batean adoptatua izateko irrikan dagoen neskatok bat da protagonista. Egoera berean dauden beste neska batzuek bezala, jantziak egiten eta josten ematen dituzte egunak.

Bestetik, Jorge Cordon *Iortx* irurtzundarrak La Banda teatro circo konpainiarendako sortutako musika entzun ahal izango da *Yugen* ikuskizunean, uztailaren 25ean, osteguna, 22:00etan, Erriberriko Teobaldos plazan.

Udako Kultur 2024 programa Sakanara helduko da

Etxarri Aranatzaren eta Altsasun izanen dira emanaldiak, uztailaren 26an eta irailaren 6an, hurrenez hurren

SAKANA

Ekainaren 21etik irailaren 28ra Nafarroako hainbat leku bisitatzeko proposatzen du Kultur programak. Tartean Etxarri Aranzera eta Altsasura etorriko dira Nafarroako Gobernuak udarako

sustatutako programaren emanaldiak. Bestetik, Lur Larrazaren Kerobia taldeak ere kontzertua emanen du programaren barruan.

Uztailaren 26an, ostirala, 21:00etan, Etxarri Aranzokoz plaza, The Taverners taldearen kontzer-

tua egongo da. Biolina, mandolina, kontrabaxua, akordeoia, gaita, ahotsa, gitarra eta bodhran eta perkusioak dira The Taverners taldearen instrumentuak.

Irailaren 6an, ostirala, festaurrekoan, Ibil Bedi taldearen *Goidea* emanaldia izanen da Altsasuko Foru plazan, 21:00etan. *Goidea* ikuskizunean bere ibilbidea erreparatzen dute.

Ekainaren 28an, 20:00etan, Lur Larraza gitarrista etxarriarraren Kerobia taldearen *Gora Bizitza* izanen da, Izabako anfiteatroan.



BAZTERRETIK

EKAIN ALEGRE GIL

'Sold out'

Agian niri bakarrik ari zait gertatzen, baina nekatuta nago bi hitz horietaz. Ederra da (edo zen) kontzertu bateko sarrera guztiak agortzea, horrek esan nahi baitu artistaren ibilbidea ongi doala edo behintzat, aretoa betetzeko gai dela. Hala ere, sarrerak agortzearena tranpa bilakatu da gaur egun, eta jada ez da salbuespen bezala gertatzen den zerbait.

Zenbatetan aurkeztu zaigu kontzertu bat ikuskizun errepikaezin eta esperientzia bakartzat, ondoren ikusteko sarrerak agortu bezain pronto bigarren edo hirugarren data iragartzen dutela? Zenbatetan ziurtatu digute "orain bai, hau da emango dugun azken kontzertua" eta sarrera guztiak saltzean urtebete (edo gehiago) iraungo duen bira bat prestatuta zutela esan?

Eta iragarpen bakoitzaren ondoren beti errepikatzen da patroia berbera: web orri saturatuak, sarrera lortzeko pantailaren atzean ordu luze itxaroten dagoen jendea eta askotan, saiakera osteko dezepzioa. Baina kontuz,

horrek zorte txarra edo kalkulu arazo bat dela dirudien arren, sarritan prestaturikoa da, etorkizuneko beste "kontzertu historiko" bateko espektatibak altu mantentzeko.

Formula horrek ezin hobeto funtzionatzen duela sobera frogatua dago, etengabe agertzen baitira kontzertu mota horien iragarpenak; eta behin hori ikusita, arma bezala erabiltzen dute ekitaldi produkzio enpresek *sold out*-a. Egon dira zenbait ekitaldi, zeinetan sarreraren salmenta ongi ez zihoan arren *sold out*-a iragarri zuten, aste batzuen buruan (magia bidez edo) sarrera gehiago saldu ditzaketela esateko, hasierako *sold out* horrek jendearen gosea areagotuko duelakoan.

Ez dakit, poztekoa da ikustea gure inguruan badaudela eremu handiak betetzeko gaitasuna duten artistak, baina kezagarria iruditzen zait hori lortzeko bidea jendearen espektatibak eta sentimenduak produktu soil bihurtzea izatea.



@ANE.MARTIJA

Ane Martijaren azkena

'Guztia soberan' deitzen da Ane Martija kantautore etxeberriarrak kaleratu duen azken kanta eta bideoak. Ikus-entzunezkoan goi mailako pilotariak agertzen dira, Nafarroa Arenan. Ekainaren 23an, igandea, 13:00etan, abeslariaren kontzertua emango du Uharte Arakilgo plazan, festetan; eta ekainaren 27an, osteguna, 20:00etan, Irurtzongo Pikuxar plazan.



Altsasuko jauzi taldeko kideak entsegu batean. UTZITAKOA

Plazan dantzatzeko

Duela pare bat urte Altsasuko hogei bat pertsona jauziak ikasteko biltzen hasi ziren. Helburua "noizbait" plazan dantzatzeko zen, eta helburua bete dute: urtean zehar zenbait emanaldi eman dituzte, eta gaur ere plazara aterako dira. Talde irekia da

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU "Aspaldian" Malusa Barandiaran altsasuarra Iruñean euskal dantza eta jauziak ikasten zebilen. Beste alde batetik, Bilbon bizi den Tere altsasuarra ere dantza ikastaroen artean ari zen, baita Bea haien laguna ere. "Oso gustura nengo, oso ondo pasatzen nuen, eta beti pentsatzen nuen: toki guztietan egiten dituzte jauziak eta justu Altsasun, nik dantzan plaza horretan gazte nintzela gramolarekin eta Enrike Zelaiaren doinuekin ikasi dudala, ez da dantzatzeko". "Amorrua" ematen zion Barandiarani toki guztietan plaza dantzak eta jauziak egitea eta "hemen ez". Horri bueltak ematen ari zirela, duela bi urteko San Pedro egunean norbaitek galdetu zien ea ez ziren animatuko dakitena erakustera. "Hori da beti egin izan duguna plazan, batzuk besteekin ikasten". "Zergatik ez? Saia gaitzke". 2022ko

San Pedro egunean, beraz, "ni jubilatu ondoren" jauzi taldea sortzea erabaki zuten: "Urriari elkartzeko hasi ginen, presiorik gabe. Ondo pasatzea, dantza egitea eta ikasten badugu eta aukera badugu noizbait plazan dantza egiteko helburuarekin".

Hogei bat pertsona hasi ziren duela pare bat urte jauziak ikasten. Aurretik taldeko zenbait kide dantza taldeetan aritutakoak dira, baina gehienak ez. "Inolako pretentsiorik gabe hasi ginen". Gizonezko batzuk elkartzeko direla ere aipatu du Barandiaranek, "gutxi, baina badaude batzuk".

"AMORRUA EMATEN ZIDAN; TOKI GUZTIETAN DANTZATZEN ZIREN JAUZIAK"

Ostiraletan elkartzeko hasi ziren, eta tokia lortzea kostatu bazitzaie ere, Musika Eskolan txoko bat eman zitzaie. Ondoren, Zelandiko kiroldegira joan ziren.

Jauziak

"Gu gara irakasleak. Gure artean moldatzen gara". Ikasturte honetan Aintzane Marin Altsasu institutuan lan egiten duen unuarra joan da taldera, "ikustera". Iruñeko Oberena dantza taldean dago " eta irakasle bezala egon behar zela pentsatu genuen". Haien artean ikasteara eta irakasle desberdinak egotearena Barandiarani gustatzen zaio: "Iruñean bi taldeekin ibiltzen naiz, bi irakasleekin. Emakumea bata da eta gauza batzuk esaten dizkigu eta bestea Duguna taldeko mutiko bat da, txupinazoa botako duen taldekoa, eta beste gauza batzuk esaten

ditu. Esaterako, batek A esaten du eta besteak A prima. Baina beti ikasten duzu".

Jauziak ikastea "erraza eta polita" dela esan du Barandiaranek. "Adin bat dugu eta ez dugu programazio batekin egiten eta abar. Nahi dugulako egiten dugu, gustura gaudelako eta dantza egin nahi dugulako". Jauziekin gertatzen dena, azaldu du Barandiaranek, pausoak ikasten dituzela da: "Badaude pausoak eta horiekin egiten dira dantza desberdinak; ez dugu zertan koreografiak ikasi behar". Pauso horiek musikaren batera esaten dira: erdizka, erdizka lauetan, dobla, luze... "Horrekin ere kontzentrazioa lantzen duzu momentu horretan esaten dutenari erne egon behar zarelako". Egunerokotasunaren gauzak alde batera uzten dituztela esan du ere, "erlaxatzen zaitu". Jauziak ez ezik, Axuri Beltza, Jota, Porrusalda eta bestela plaza dantzak ere ikasten ari dira. "Nik uste horiek ere dantzatu behar ditugula; beti dantzatu ditugu hemen. Hortik geroz eta horren jarraipena gara". Hala ere, aitortu duenez, Barandiarani gehien gustatzen zaiona jauziak dira, baita jota eta porrusalda ere.

"OSO POLITA DA; EZAGUTZEN EZ ZENUEN JENDEA EZAGUTZEN DUZU, JENDE DESBERDINA"

Dantza taldeak ere jende berriak ezagutzeko aukera eman die: "Hori oso polita da. Toki guztietan bezala hemen kuadrillak edo auzoka elkartzeko gara, eta honekin ezagutzen ez zenuen jendea ezagutzen duzu, jende desberdina". Amankomunean dantza egiten dutela eta "oso gustura" daudela diote. Gaur egun 30 bat pertsona biltzen dira bi taldetan.

Helburua plazan "noizbait" dantzatzeko zen, eta helburua bete dute. Esaterako, gaur, ekainak 21, ostirala, 19:15etik aurrera, Foru plazara aterako dira. "Esan genuen ikasturte bukaeran zerbait egitearena eta Gurutzek aipatu zuen udako solstizioa ere ospatzeko, plazara ateratzea". Aurretik zenbait emanaldi egin dituzte ere, "Etorkizuna dantza taldekoekin elkartzeko izan gara, gazteekin; esan ziguten plaza dantzak egin nahi zituztela, eta martxoan atera ginen. Oso gustura". Bestetik, maiatzaren 3an Altsasuko lehenengo errepikan ere jauziak eta herriko jota eta porrusalda dantzatu zuten. Ekainaren 28an, Lizarragabengoako festetan, eta ekainaren 30ean, Irurtzunen, Haize Txikiak Banderarekin batera Sakanako lehenengo jauzilarien topaketa eginen dute ere.

Fanfarrearekin atera izan dira, baina "zailagoa" dela aipatu dute. "Norbaitek pausoak kantatu behar ditu, eta hori oraindik ez dakigu egiten". Hala ere, *Axuri beltza*, *Zazpi jauzi* eta horrelako dantzak egiteko fanfarrearekin eginen dituzte gaur. Bestela, musika jartzeko "tramankulu" batekin joaten dira, "eta hori ere gustatzen zait. Oso herrikoia gelditzen da; xumea, arrunta, gu garena". Jauziak dantzatzeko jakin behar dela esan du Barandiaranek, baina edonor atera daiteke dantzatzera. "Hori da beti egin dena, zortzikoarekin eta abar horrela egin da beti, dantzatzera atera eta ikasten joan".

"Nik uste garrantzitsuena irekia dela da". Kaleko arroparekin joaten dira, "horrek desberdintzen gaitu". Zapi bat janztearena planteatu zuten, "baina lagun batek esan zidan hori ere uniforme bat dela. Ez uniformerik ez zapirik ez ezer". Plazan dantzatzeko, besterik ez. "Asmoa ongi pasatzea eta gustura egotea da". Momentuz datorren ikasturtean jarraitzeko asmoa dute.

'El Conquis' amets moduko bat izan da''

Igor Martinez Lumbrerasesek joko handia eman du 'El Conquistador del fin del mundo 20' saioan. Publikoaren faboritoaren sariko finalisten artean sailkatzeko aukera du, eta hala bada asteazkeneko azken saioan berari bozkatzeko deia egin du altsasuarrak

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

1 Zergatik aurkeztu zinen 'El Conquis' saioko castingera?

Programa betidanik gustatu izan zait. Altsasuk festetan geundela, mugikorrean saioko iragarki bat ikusi nuen, eta izena eman nuen. Castingean bakoitzak ordu laurden bat zuen, baina ni 45 minutu egon nintzen. Nire bizitza guztia kontatu nien.

2 Sakana fundizioan lan egiten duen kimikari batek jokoa emango zela pentsatuko zuten.

Agian saltsa pixka bat jarriko nuela (kar-kar). Aurre hautatua nengoenez, analisiak egin zizkidaten, esfortzu-proba, txertoak, alergiak, arropa probatu... Eta 15 egun barru hautatua nengola esan zidaten.

3 Aurten 'El Conquis'-eko 20. edizioa denez, lehendabiziko



Igor Martinez, 'El Conquis'-eko duela, CBASK-eko kamiseta jantzita duela. EITB

edizioari keinua eginez Patagonian grabatu zenuten saioa.

Azaroaren erdialdean joan ginen, han udaberria zela. Eguraldia aldarokorra zen, eta altueragatik tenperaturak nahiko hotzak ziren. Programa grabatzen 15 egun egon nintzen, eta aurretik etxola batzuetan bi egun egon ginen, taldea ezagutzeko. Guztira 18 egun izan ziren.

4 Talde gorria zen zurea: pumak. Nolako esperientzia izan da?

'El Conquis' amets baten modukoa izan da. Hasieran urduri nengo, taldekideak ez nituelako ezagutzen. Lehen probetan ez nuen gehiegi nabarmendu nahi, baina taldekideek berehala ezagutu ninduten.

5 Joko asko eman duzu. Taldekideek egindako janari lapurreta saiakera nola bizi izan zenuen?

60 ordu generamatzen jan gabe, eta hirugarren proba irabazi genuenean bakoitzari elikagai zaku bat eman ziguten. Nik eta Xabik gure zakuak partekatu genituen, eta ongi antolatu ginen, baina jendea gehiegi jaten hasi zen. Janaria bilatzeko ikerketa egin beharko genuela hitz egin zen taldean, baina janaria lapurtzen harrapatzen baninduten bertatik kanporatu ahal nindutela jabetuta, ni ez nintzen Sebasen txabola horretara igo, eta libratu nintzen. Gure taldea desagertu egin zen; momentuan zenbait egoera ez moztzen jakitea, hori da dudan damua. Talde urdineran joan ginen, eta horrek jopuntuan jarri gintuen. Bertan 'El Conquis'-eko partaide mitikoak zeuden: Lobo, Andrea, Jokin, Luisito... oso gustura egon nintzen eurekin.

6 Nollarekin maitemindu zinela ez duzu inoiz ezkutatu.

Nella ez zen taldera ongi egokitzen. Duelurako hautatu zuten, eta bera laguntzea erabaki nuen. Abenturan jarraitu zuen, eta elkarrekin asko egoten ginenez, gauza batek bestea ekarri, eta maitemindu nintzen. Gero, harremanak ez zuen aurrera egin. Ez genuela ezer esango aipatu genuen, baina saioan egin zizkidaten galderetan aitortu nuen.

7 CBASK saskibaloit taldeko kamisetak ustekabeko protagonismoa izan zuen zure duelaun.

Abenturara joan baino lehenago bazkari bat egin genuen, eta CBASK-en kamiseta horretan 100 pertsona baino gehiagok sinatu zuten. Dueluan janztea erabaki nuen. Sokari bakarrik eskuekin heldu beharko geniola pentsatzen nuen, baina besapean ere heldu beharra zegoen. Guztigatik galdu nuen, ze pena!

8 Patagoniatik bueltan, saioa emititu arte isilik egon behar izan zenuen.

Jendeak asko galdetzen zidan eta oso zaila egin zitzaidan. Naizen modukoa izanda nahiko ongi eraman nuen.

9 Zure saioan jendea liluratuta utzi zenuen.

Ez nuen pentsatzen horrenbeste arrakasta izango nuenik. Patagonian une berezi asko bizi izan nituen, eta badirudi jendea gustatu zitzaizkioa. Hirugarren faboritua naiz, Azucenaren eta Huidoren atzetik, eta hori ikaragarria da. Ea asteazkeneko azken saioan publikoaren faboritua aukeratzeko finalisten artean nagoen. 5.000 euroko saria lortuko du irabazleak, ea jendeak bozkatzeko nauen (kar-kar).

10 Mundu bat zabaldu zaizu: 'El Conquis', 'Atrapalo si puedes' lehiaketa... ETB mutila zara.

ETB-ra sartzen zarenean ez zaituztela askatzen esan zidaten (kar-kar). 'Atrapalo si puedes' lehiaketako 18. saioa grabatu dut. Ez naiz oso ona, baina ongi pasatzen dugu. Ostiraletan lau programa grabatzen ditugu. Sakana Groupeko lankideak eta arduradunak eskertu behar ditut, txanda aldaketak egiteko beti prestu daudelako. Ikaragarri ongi portatu dira, ez dakit zenbat bazkari zor dizkiedan...

11 Astelehenean erabakiko da 'El Conquis', Ushuaiako azken proban. Nork lortuko du ikurriña?

Txubik irabaztea nahiko nuke. Ilusio handia litzateke. 'El Conquis' sekulako esperientzia izan da. Anek, Potxik, Iarak eta Xabik Bakik taldea sortu dugu, eta lau-erok hilabete bitan planak egin ditugu. Gaiantzekoekin ere harreman ona dut, eta zenbait plan ere egiten ditugu. Euskal Herria ezagutzen ari naiz. Altsasura, ziurrenik festetako larunbatean gonbidatuko ditut.

FESTETARAKO DENA PREST?

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe



gk
DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

619 821 436
info@gkomunikazioa.eus
www.gkomunikazioa.eus
Foru plaza, 23-1. Altsasu



